



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko otsailaren 5ean

8 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru Lege Proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen du (2. or.).
- Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko Foru Lege proiektua (11. or.).
- Nafarroan ikus-entzunezko jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duen Foru Lege proiektua (17. or.).
- Nafarroako Foruzaingoan polizia judizialeko unitateak antolatzeko Foru Lege proiektua (32. or.).
- Foru Lege proiektua, zenbait aldaketa egiten dituen Balio Erantsiaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legean eta Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legean (33. or.).
- Foru Lege proiektua, etxebizitza arloko jarduketara babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak eta babes publikoko araubideko etxebizitzaren gehieneko prezioak ezartzen dituen. Proiektua erretiratu egin dute (42. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru Lege Proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 9ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (43. or.).
- Foru Lege proposamena, Castejónen ikasleen hezkuntza-zerbitzua mantentzeko buruz Nafarroako Parlamentuak 2000ko ekainaren 30ean hartutako Erabakia betearazteko, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (44. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen du**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2000ko abenduaren 18an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

**Lehena.-** Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen duen Foru Lege proiektua ohiko prozeduraz bideratzea.

**Bigarrena.-** Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordearen esku uztea.

**Hirugarrena.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2001eko otsailaren 23ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalgo dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Foru Lege proiektua, Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen du**

ZIOEN AZALPENA

Eskaintza komertzialaren kontzentrazio gero eta handiagoa da azken hamarraldiko gertaera

ekonomiko-sozialetako bat. Joera horren bilakera pentsamolde, gustu, premia, maila ekonomiko, garraibide, ohitura eta are gizarteko rolen aldaketaren parean doa. Baina, "Saltoki handiak" deritzen zabalkundeak berak kontuan hartu beharreko errealitate sozioekonomiko bati erantzuten baitio, horrelako saltokien ugaritze kontrolgabeak oraingo salerosketa-eremuen iraupena arriskuan jarri eta merkatuan nagusitasun egoera onartezinak sor litzake. Azpiegitura eta ekipamenduen lurralde orekak berak ere jasan lezake horrelako saltokiek sortzen duten eragina, eta hain da larria, non arriskuan jar baitezake gaurko hiri eredia bera ere, elkarbizitzarako elkargunetarako balio dezaketen hiri-sareko gune integratuak indartzean oinarritua; babestea merezi duen eredutzat hartu ohi den eredia, bestalde.

Azaldutako arrazoiengatik, foru lege honek ezarpen prozesua antolatu nahi du, salerosketaren kontzentrazioak atzerabiderik gabeko mailara iritsi baino lehen.

Foru Legeak, hasteko, bere eragin esparrua irizpide argi, objektibo eta frogarrez arabera mugatzen du, eta horregatik gutxieneko neurri batzuk (5.000 metro karratu) eta kalkulatzeko modu zalantzagabeak ezartzen ditu. Saltoki handiak antolatze gaurko modu konplexuen ezaggarri nagusia, laburbildurik, "kudeaketa integratua" da, bi ardatz nagusi dituena: kudeaketa komertzial bateratuko hitzarmenak, alde batetik, eta zerbitzu partekatuak, bestetik.

Hurrena, Legeak bere helburuak azaltzen ditu, berdin lotzen baitzaizkio salerosketaren eta lurralde orekaren esparruari. Sendotutako salerosketa-eremuak eta etxegune historikoak ez hondatzea nahi litzateke, merkatuan inoren erabateko nagusitasuna galarazi, ikuspegi komertzial hutsetik. Baina, aldi berean, beste helburu batzuk ere badira: ingurunearen gaineko eragina, saltoki handietarako irispide egokia ziurtatzea eta saltoki handien eta beraiekin loturiko aisialdiko eremuen arteko oreka lortzen saiatzea, lurraldearen antolamenduen ikuspegiitik. Hori guztia, jakina, salgai-

eskaintza egokia Foru Komunitate osoan bermatzeari inolako oztoporik jarri gabe eta kalitate, kantitate, aukera, zerbitzu, prezio eta ordutegi baldintza tajuzkoetan.

Arlo honetako arauen hierarkia lehenbizikoz argi eta garbi mugaturik geratzen da. Alderdi komertzialak eta lurraldearen antolamenduaren ingurukoak zuzen uztartzen dira, eta lehentasun irizpideak oinarri hartuz honako hauek ezartzen:

a) Udalez gaindiko Eragineko Proiektu Sektorialak erabiltzea Saltoki handiak ezartzerakoan (izan ere, dudarik dabe, haiek salerosketaren eta lurralde orekaren esparruetan duten eraginak normalean Saltoki horiek dauden udalaren esparrua gainditzen dute), salbu eta udal planeamendua aldatzea aski dela uste bada;

b) udaleko hirigintza planeamenduaren lotura antolamendu komertzialaren arabera,

eta c) antolamendu komertziala goragoko esparruaren planeamenduarekin kooordinatzea. Lurralde antolamenduko printzipioek eta Saltoki handietarako baimenak emateko irizpideek Salerosketa Antolatzeko Zuzentarauei lege esparru egokia ematen diete.

Bai Zuzentarauek mugatzen dituzten printzipio, eduki eta irizpideek bai haien irispide juridikoa, berriz, mugatu egin dira, antolamendu komertzialak errealitate aldakorrera egokitzeko ematen duen gutxieneko malgutasun margin beharrezkoak uzten duen zehaztasunik handienarekin. Zuzentarauek alderdi biko tresnatzat hartzen dira: egoera komertzialaren diagnostikoa egiteko, alde batetik, eta sektorea horren arabera antolatzeko, bestetik. Hirigintzako lurralde antolamenduari dagozkion gorabeheren erregelamendu garapenerako ildoak ere behar bezala adierazten dira.

Administrazioak tramiteak azkar egiteari kalterik egin gabe, baimena emateko prozedurak lau ezaugarri berezi ditu:

a) Tartean diren sektoreen parte-hartzea. Beste neurri batzuekin batera Saltoki handien Ponentzia tekniko bat antolatzen da horretarako. Toki administrazioaren parte-hartzea bi bidetatik indartzen da: Saltoki handien Ponentziaren bidez eta, halaber, ezarpenak sortzen dituen lurralde arloko ondorioen azterketako organo teknikoak (Lurraldearen Antolamenduko Batzordea) dituen irizpideak eta Saltokia ezartzekoa den Udalak dituenak bat etorri gero, baimena emateko prozedura blokeatzeko aukera emanez.

b) Segurtasun juridikoa. Prozeduraren gorabehara administratibo pisuzko guztiak eta behar diren txostenak eskatzeko modua, ondorio juridi-

koak eta baimen ebazpenen indarraldia, eta baita isiltasun administratiboaren araubidea ere, segurtasun juridikoa oinarri-gidatzat hartuz arautu dira. Bereziki aipatzekoa da desjabetzpen legeriara jotzetik sortutako bermea, antolamendu komertzial eta hirigintzakoaren aldaketek ekarritako egokitzapen "traumatikoen" kasuan. Dagoeneko emanak diren Lizentzia komertzial berariazkoak ez dira baliogabetu edo aldatuko automatikoki antolamendu komertzial eta hirigintzakoaren baliabideen aldaketen ondorioz. Lizentzien baliogabetze edo aldaketa, gertatuz gero, nahiatezko desjabetzpen legerian ezarritako irizpideen arabera kalte-ordainak ekarriko ditu berekin.

c) Prozeduraren ikuspegi bikoitzaren uztartzea: komertziala eta lurralde antolamendukoa. Moldatutako prozedurak bi ikuspegiaren orekari eusten dio, koordinazio edo kontrol arazoak sorlitzaketan banaketei bidea itxiz eta bi aldeek prozedurazko "iter" delakoa une jakinetan bateraraziz.

d) Eskualde geografikoen, populazioguneen eta beste zenbait faktore zehatzen arabera gertatzen diren gorabehera desberdinetara egokitzea. Foru legeak bide ematen du baimenak emateko kasu bakoitzean antolamendu komertziala aplikatuz sortzen diren betebeharrak eskaeren zehaztasunak moldatuz. Garrantzi berezia du 1.000 metro karratutik 5.000 bitarteko azalera duten saltokiak kontrolatzea; horretarako, horrelakoren bat ireki nahi duenak bere asmoa adierazi beharko die Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta saltokia ezarri nahi den Udalari, eta horrek ez du kentzen, 2.500 metro karratu baino gehiago baldin baditu, Salerosketa Lizentzia berariazkoa eskuratu beharra. Horrela, saltoki ertain horiei Udalez gaindiko Plan Sektorialeatik sortutako betebeharrak ezarri gabe, kontrolak ezartzen ahal dira beharrezkoak direnean --eta beharrezkoak diren heinean--, ez baitira antzekoak ere tamaina horretako Saltoki batek herri txiki batean duen eragina eta hirigune handiangoan duena.

Foru Legeak Saltoki handien eragile eta operatzaileen estatutu juridikoa honela finkatzen du: eskubide eta betebeharrak zehatz eta eskagarrien titularrak dira. Salerosketa Lizentziak laga ahal izatea arautzen du, horrelako prozesuen gardentasun eta bideragarritasuna bermatu eta behar gabeko merkatuko nagusitasun egoerei hesia jartzeko. Estatutu juridiko honen kontrolak zehapen araubide berri bat hartzen du babesteko, irizpide bai komertzial bai lurralde-oinarrikoak kontuan hartuz.

Zehapen araubidearen eskumen banaketaren oinarriek baimen fasekoek duten oinarri bera dute: dispertsioak eta eskumen lausotasunak saihestea.

Azkenik, Xedapen gehigarri eta iragankorrek denbora-irispidea eta zenbait egoeraren gaineko eragina zehazteko beharrezkoak diren aurreikuspenak ezartzen dituzte. Maiatzaren 10eko 154/1993 Foru Dekretua, Azalera handiko instalazioen ezarpena lurralde eta hirigintza aldetik arautzen duena, espreski indargabetzen da.

## **I. TITULUA** **Xedapen orokorrak**

### **1. artikulua.** Foru lege honen xedea

Foru Lege honek Saltoki handien antolamendua arautzea du xede.

### **2. artikulua.** Saltoki handia zer den

Foru Lege honek aurreikusitako ondorioetarako Saltoki handitzat hartzen dira honako beharrikunak betetzen dituzten lokal, eremu edo esparruak:

#### 1. Txikizkako salmentarako izatea.

Kanpo uzten dira soilik automobilak saltzeko tokiak, botikak, lorazaintza eta haren osagaiak, eraikuntzarako materialak eta altzariak saltzekoak.

2. 5.000 metro karratuko salerosketa-azalera garbia edo hortik gorakoa izatea.

Salerosketa-azalera garbiaren barnean sartzen dira aldi bateko edo etengabeko salgai erakusketarako, kutxetarako, erakusleihoetarako, bezeroentzako zerbitzuak emateko eta eremu horien arteko pasabidetakarako erabiltzen diren eremuak.

3. Kudeaketa bateratu edo integratu baten pean egotea.

Kudeaketa bateratu edo integratuko saltokitizat hartzen dira honako kategoria hauetakoren batean sartzen direnak:

#### a) Titulartasun bakarrekako saltokiak.

b) Txikizkako bi saltoki edo gehiago biltzen dituzten lokal, aldameneko eremu edo esparruak, baldin eta salerosketa elkarrekin kudeatzeko moduak hitzartuak badituzte.

c) Txikizkako bi saltoki edo gehiago biltzen dituzten lokal, aldameneko eremu edo esparruak, baldin eta aparkalekuen edo amankomuneko beste zerbitzuen gaineko jabetza edo erabilpen eskubideak elkarrekin badituzte.

Foru Lege honetan ezarritako ondorioetarako kontzeptu hauek definitzen dira:

– Lokala: eremu itxi eta estalia.

– Esparrua: osatzen duten saltokiek jabekidetzan amankomuneko bideak dituen eremua.

– Aldameneko eremuak: bata bestearen ondoran dauden eremuak, beren artean tarterik ez dutenak.

**3. artikulua.** Salerosketa Antolatzeko Zuzentaruak.

1. Nafarroako Gobernuak Salerosketaren Antolamendurako Zuzentaruak onetsiko ditu.

Salerosketaren Antolamendurako Zuzentaruak 5. artikuluan ezarritako gida-oinarriekin egingo diete. Haiek onartzeko, Lurraldearen Antolamenduko Batzordeak eta foru lege honen 24. artikuluko Saltoki handien Batzorde Teknikoak alde zuzeneko txostena eman beharko dute.

2. Salerosketaren antolamendua lurralde planigintzarekin koordinatu behar da. Horretarako:

a) Nafarroako Salerosketa Antolatzeko Zuzentaruak egitean Nafarroa osorako ematen diren lurralde antolamendu orokorreko jarraibideen edukiak hartuko dira kontuan.

b) Salerosketa Antolatzeko Zuzentaruak jarraikiz onartzen diren Saltoki handiei buruzko Udalez gaindiko Proiektu Sektorialak eskualdeko Planetan jasota dauden xedapen bete beharrekoei lotuko zaizkie.

c) Saltoki handiei buruzko Udalez gaindiko Proiektu Sektorialen gaineko aurreikuspenek tokiko hirigintza planeamenduak behartzen dituzte. Toki Administrazioako eskumenen esparruko lizentziak Udalez gaindiko Proiektu Sektorialean ezarritakoaren arabera emanen dira, hark indarra hartzen duenetik.

**4. artikulua.** Salerosketa Antolatzeko Zuzentaruak eduki eta ondorioak.

1. Salerosketa Antolatzeko Zuzentaruak oinarriko edukiak izan behar ditu:

a) Nafarroan dagoen saltoki eskaintza eta eskaeraren azterketa bat, esparru eta jarduerasektoreen arabera egina eta bien arteko egokitasuna neurtzen duena.

b) Nafarroarako egiten den merkataritza-egituraren aurreikuspena.

c) Saltoki handiei buruzko baimenak emateko kontuan hartzeko zehaztapen eta irizpide ponderatuak.

2. Salerosketa Antolatzeke Zuzentzauek zilegi dute:

a) Saltoki handiak mugatzea, baldintzak ezartzea edo haien ezarpen edo aldaketa debekatzea, aztertutako esparruan saltoki defizit edo superabitaren arabera, eta, agian, Zuzentzaue horiek 5. artikuluan aurreikusitako printzipio gidarien arabera ezarritako beste faktore batzuk kontuan hartuz.

b) Saltoki handien azalera osoei mugak jartzea edo erabilera jakin batzuetarako azalerei eta, bereziki, Saltoki handiei loturiko aisialdiko eremuak, lurraldean aisialdi eta zerbitzuetarako eremuen arteko oreka bilatzeko asmotan.

c) Saltoki handien ezarpen edo aldaketarako baimena ematerakoan betebeharrak gisa ezartzea inguruan babestekotzat hartzen diren jarduerentzat konkurrentzia maila jasanezinak ekarriko litzaketen erabilera jakin batzuk kendu beharra.

## II. TITULUA

### Saltoki handien antolamendua

#### I. KAPITULUA

##### Antolamenduaren oinarriak

**5. artikulua.** Saltoki handien antolamendua zuzentzen duten oinarriak.

Saltoki handien antolamendua zuzentzen duten oinarriak honako hauek dira:

a) Gaurko populazioari, eta baita gerokoari ere, Salerosketa Antolatzeke Zuzentzaue mugatzen den salerosketa-eremu bakoitzean salgai eskaintza egokia bermatzea, kalitate, kantitate, aukera, zerbitzu, prezio eta ordutegi egokietan.

b) Monopolio egoerak edo merkatuko nagusitasunekoak saihestea.

c) Salerosketa eremu finkatuak mantendu eta suspertzea, eta Saltoki handien ezarpenak sortzen duen eragin nabarmenera horrelako eremuak pixkana egokitzen saiatzea, denbora aldetik neurritsu jokatuz.

d) Zentro historikoetan salerosketaren beherakada larriko arriskuak saihestea eta egokitzeko eta suspertzeko formulak bilatzea.

e) Ingurunearen gaineko eragina gutxituko dela, Saltoki handietarako irispidea zuzena izanen dela eta eskualdeko azpiegitura eta ekipamenduen eta Komunitate osokoen arteko lurralde oreka egokia izanen dela bermatzea.

f) Saltoki handiei loturiko aisialdi eremuen oreka egokia bilatzen saiatzea.

g) Ekarbizitzarako bilgunetarako balio duten eta hiri-sarean integratuak diren eremuak indartzea oinarri duen hiri eredu bultzatzea, hiri-ertzeke Saltoki handiek eredu horren hondamena ekar ez dezaten.

h) Saltoki handien antolamenduaz arduratzen diren sektore sozial, ekonomiko eta instituzionalen parte-hartzea erraztea.

#### **6. artikulua.** Lurralde arloko oinarriak.

1. Nafarroako Gobernuak saiatuko da Saltoki handien ezarpenak Foru Komunitateko lurralde orekari kalte egin ez diezaion, eta, azpiegitura sarearen zentzuzko moldaketan bereziki, bultzatuko ditu giza biziguneen eta jarduera ekonomikoaren erakarpen poloen banaketa zentzuzkoa, bideen eta herrietarako sarreraren egokitasuna, komunikazio bideen erabilpenaren maila hobere-tara zirkulazioaren emanak egokitzea eta interes historiko-artistikoa duten inguruetako balio estetiko eta kulturalak kontserbatzea.

2. Nafarroako Gobernuak adierazitako lurralde oinarrien garapenera zuzendutako erregelamendu mailako xedapen guztiak ematen ahal ditu, eta bereziki zilegi izanen du:

a) Beharrezkoa iruditzen zaionean, lurralde, hirigintza eta ingurugiroaren gaineko eraginari buruzko alde aurreko txostenak eskatzea.

b) Azpiegiturak, zerbitzuak eta sare informatikoa ezarpenaren premietara egokitzeko arauak ematea.

c) Sartzen eta ateratzen diren ibilgailuen emana ongi antolatzen dela bermatzea.

d) Ezarpen eremuak antolatzea, eta horretarako beharrezkoak izanen dira honako hauek: merkataritza-jardueretarako eta bestelako erabilpen batzuetarako okupatutako azalera osoak behar duen lekuaren eta aparkalekuen, jardinezaturiko zonen eta libreen arteko banaketa egokia egitea, premiazkotzat jotzen diren sektoreko ohiko neurriak zehaztea eta arkitektura-diseinuak ingurune-ko ezaugarri ekologiko, paisaje- eta historiko-artistiko babesgarriei kalte ez egitea.

#### **7. artikulua.** Baimena emateko irizpideak.

1. Salerosketa Antolatzeke Zuzentzaue artean, besteak beste, Saltoki handietarako baimena emateko honako irizpide hauek sartzen ahal dira: gehieneko neurri baimengarriak, merkatu kuota irisgarria, mailakaturiko ezarpenerako ildoak, Saltoki handien, udalerrri moten eta populazio gune handien barruan kokatzeko formatu hobetsiak eta kontsumitzaileentzako abantailak.

2. Nafarroako Gobernuak, halaber, foru lege honetako 5. eta 6. artikuluen edukitik sortzen diren beharkizunak betetzea eskatzen ahal du.

## II. KAPITULUA Saltoki handietarako baimena

### 8. artikulua. Eskaerak.

1. Saltoki handiak ezartzeko baimena eskatzen duten eragileek honako dokumentazio hau aurkeztu behar dute:

a) Nafarroako Gobernuan lurralde antolamenduan eskumenak dituen Departamentuari zuzendutako eskaera.

b) Eskatzailearen nortasun fisiko edo juridikoa frogatzeko agiriak edo, bestela, ahaldunarenak.

c) Abian jarri nahi den merkataritza-jarduera-irudi eta idatzizko dokumentazio froga-emai-lea, honako datu hauek jasotzen dituen:

– Ezarri edo handitu nahi den saltokia non izanen den eta zer tamainatakoa, eta eraginpeko lurralde esparruaren deskribapena.

– Ingurunean izanen dituen ondorioak, inguru-giroaren gaineko eragina eta horiek zuzentzeko neurriak.

– Saltoki handiak zirkulazioan seguruenik izanen duen eragina, antolamendurako proposamenak eta eragileak hartuko dituen neurriak.

– Eraikitze-azalera eta honako hauetarako azalera garbiak: salgaien aldi bateko edo aldioroko erakusketa, kutxak, erakustokiak, bezeroentzako zerbitzu aldeak eta salmenta-eremuen arteko iraganbideak, 2. artikuluko honetako 1 zenbakian xedatutakoaren arabera kalkulatuak.

– Ezarri edo aldaketa egin nahi zaion saltoki motaren deskribapena, zein operatzaile komertzialek ustiatuko duen eta zein markak erabiliko duen, produktu motak, establezimentuan produktuak nola egonen diren, kutxa kopurua, ohikoen artetik erabiliko diren salerosketa-formulak eta Foru Komunitatearen esparruan lehenbizikoz ezarri nahi diren salmenta-teknikak, horrelakorik izanez gero.

Proiektuari eratzikitzen zaion salerosketako eragin-eremua eta dagoeneko ezarriak diren saltoki edo merkataritza sektore garrantzizkoetan izanen dituen ondorioak.

– Kontratatu asmo den enplegatuko kopurua eta kontratu motak.

– Bideragarritasun ekonomikoaren azterketa, aurreikusitako inbertsioak eta finantzabideak

barne izanen dituen; laguntza publikorik jasoko duen ala ez adieraziko da.

– Proposatutako kokagune esparruaren antolamendua: eraikuntzaren ezarrera, ibilgailuen eta oinezkoen sarbideak, aparkalekuak, berdeguneak, bestelako zerbitzu osagarriak.

– Ezarpenaren edo handitzearen egutegia, fasetan banatua.

– Udalez gaindiko Proiektu Sektoriala legez tramitatzeko beharrezkoak diren bestelako zehaztapenak, horrelakorik bada.

2. Baimenak lortzeko baldintzak aldatzeko eskaerei aldatu nahi diren baldintzekin lotura duten zehaztapen dokumentalak erantsi behar zaizkie. Udalez gaindiko Proiektu Sektorial onetsian aldaketak dakartzan baldintza-aldaketa eskatzen bada, aldaketa hori tramitatzeko legez beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu behar da.

### 9. artikulua. Baimena emateko prozedura.

1. Lurraldearen antolamenduan eskumena duen Departamentuak Udalez gaindiko Proiektu Sektoriala tramitatuko du, eta eskaeraren kopia bat merkataritza arloan eskumena duen Departamentuari igorriko dio.

Lurraldearen antolamenduan eskumena duen Departamentuak, proiektututako udalez gaindiko eraginaren maila ikusirik, uste duenean ez dela beharrezkoa Udalez gaindiko Proiektu Sektorial gisa tramitatzea, horrelaxe deklaratu du, baina egoki iruditzen zaizkion baldintza eta zehaztapenak ezartzen ahal ditu. Deklarazioaren ondoren, Saltoki handiaren ezarpena, bada ere, udal planeamenduaren aldaketa bidez gauzatu da, artikuluko honetako 4. idatz-zatikiko bigarren tartekian xedatutakoaren arabera.

Merkataritza arloan eskumena duen Departamentuak, espedientearen tramitazioak dirauen bitartean, Saltoki handien Salerosketa Lizentzia berariazkoa emateari buruz erabakia hartzeko interesgarri iruditzen zaizkion xehetasunen txostena emanen du.

2. Baimen espedienteak Txikizkako Salerosketaren Antolamenduaren Legeak aipatzen duen Konkurrentzia Babesteko Auzitegiaren txostena izan behar du, eta baita Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbara Ofizialarena ere, salerosketa arloan eskumena duen Departamentuak eskatuko baititu. Konkurrentzia Babesteko Auzitegiari txostena eskatu zitzaionetik bi hilabete baino gehiago igarotzen badira, espedientearen tramitazioak aurrera egiten ahal du.

Konkurrentzia Babesteko Auzitegiaren txostenak merkatuan nagusitasun egoerarik baden argitu beharko du, eta horretarako Nafarroako esparruan estatuko oinarritzko legeriak ezarritako gehienezko portzentajeak erabiliko dira.

3. Nafarroako Gobernuan Lurraldearen antolamenduaren eta salerosketaren arloan eskudunak diren Departamentuak hasierako proposamen bateratua eginen dute. Hasierako proposamen bateratu hori foru lege honetako 24. artikuluan ageri den Saltoki Handien Batzorde Teknikoari aurkeztuko zaio, zeinak egoki iruditzen zaizkion gorabeheren txostena ematen ahal duen.

4. Nafarroako Lurraldearen Antolamenduko Batzordeak hasierako proposamen bateratua jaso ondoren, Nafarroako Gobernuak Lizentzia emateko espedientearen jarraipena erabakitzen ahal du, eta Proiektua Udalez gaindiko Eragineko deklaratu. Nafarroako Gobernuaren Erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Udalez gaindiko Proiektu Sektorial deklaratzeko edo udal planeamendua aldatzeko baimen proposamenak eta Salerosketa Lizentzia berariazkoa aldi berean jarriko dira jendaurrean eta entzunaldian, hilabetez, erostetxe handia ezarriko den Udalean.

5. Aurkeztutako alegazioak azterturik, lurraldearen antolamenduan eta salerosketan eskumenak dituzten Nafarroako Gobernuko Departamentuek proposamen bateratua eginen dute. Proposamen bateratu hori foru lege honetako 24. artikuluan ageri den Saltoki Handien Batzorde Teknikoari aurkeztuko zaio, zeinak egoki iruditzen zaizkion gorabeheren txostena ematen ahal duen.

6. artikuluko honetako aurreko zenbakiak aipatzen duen proposamena Nafarroako Gobernuari igorriko zaio, zeina haren irizpideetatik arrazoiak emanez urruntzen ahal den, salbu eta desadostasuna edo ukoa adieraztean erakunde hauek bat datozen aspektuetan:

- Saltokia osorik edo partez bere mugapean ezarriko zaion Udaletxe bat;
- eta Lurraldearen Antolamenduko Batzordea.

7. Baimen Erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

#### **10. artikulua.** Ebazpena.

1. Saltoki handi bat ezartzeko baimena ematea Nafarroako Gobernuaren esku dago, eta barne hartzen ditu Udalez gaindiko Proiektu Sektoriala onestea edo beharrezkoa ez dela deklaratzeko, eta operatzaile komertzial bakoitzari kasuko Salerosketa Lizentzia berariazkoak ematea.

Saltoki handi baten ezarpenzat ulertzen da bai "ex novo"-tik sortzea bai alde aurretik bazegoen saltoki baten handitzea, baldin eta, bi kasuetako edozeinetan, 2. artikuluko 2. zenbakian adierazten den salerosketa-azaleraren muga gainditzen badu.

2. Salerosketako Lizentzia berariazkorik ez da ematen ahal, aldi berean Udalez gaindiko Proiektu Sektoriala onartzen ez bada, beharrezkoa denean.

3. Baimena emateko baldintzen aldaketa ere Nafarroako Gobernuari dagokio.

Aldaketak berekin badakar saltoki handiaren proiekturako baimena lortzeko erabilitako hirigintza-tresna aldatzea, beharrezkoak diren beharrikunak bete beharko dira, foru lege honetan ezarritakoaren arabera, aldaketa horiek ukitzen dituzten aspektu jakinetan tresna hori aldatzeko.

**11. artikulua.** Isiltasun administratiboaren araubidea

Baimen edo aldaketa espediente espresuki ebazteko gehienez sei hilabete epea izanen da. Epe hori luza daiteke, Udalez gaindiko Proiektu Sektorialaren tramitazioak horrela eskatzen duenean.

Finkatu epean berariazko ebazpenik ematen ez bada, eragileak eskaera ezetsizat eman dezake.

### **III. KAPITULUA** **Baimena emateko baldintzak**

#### **12. artikulua.** Baimenaren edukia.

Baimena merkataritza-antolamenduaren zehaztapenetara egokituko da. Horretarako, eskabidearen arabera nahi diren erabilerak eta aurreikusitako azalera, behar den heinean, aipatu zehaztapenetara mugatzen ahal dira.

#### **13. artikulua.** Baimenaren indarraldia.

1. Saltoki handietarako Salerosketa Lizentzia berariazkoak mugagabeko iraupena izanen du. Dagoeneko emanak diren Salerosketa Lizentzia berariazkoak ez dira ez ezetzatuko ez aldatuko automatikoki salerosketa eta lurralde antolamenduko instrumentuen aldaketen ondorioz. Lizentziaren ezeztatze edo aldaketa, gertatuz gero, kalteordaingarri izanen da, nahitaezko desjabetzapenari buruzko legerian ezarritako irizpideen arabera.

2. Erostetxea ezarri edo aldatzeko gehienezko epea baimenean ezarritakoa izanen da. Aurrei-

kuspen espresurik ez bada, gehienezko epea baimena eman ondorengo bi urtekoa izanen da.

Saltokia ezarria edo aldatua dela ulertuko da, baldin eta ukitutako azalera baimenean aurreikusitako helburuetarako egokitua bada.

Nafarroako Gobernuak luzatzen ahal du ezarritako gehienezko epea, baldin eta atzerapenerako arrazoi zentzuzkoak daudela ikusten badu, eta alde aurretik erostetxe handiaren eragile edo operatzaileak eskaera behar bezala arrazoitua aurkezten badu.

3. Erostetxe handia jardun-ezean edo jendearentzat itxita egoten bada bi urtetik gora, Salerosketa Lizentzia berriazko berria beharko du, jarduera berriro abian jarri nahi badu. Jarduera berriro abian jartzeko Salerosketa Lizentzia berriaren eskaerari beharrezkoa da eranstea eskatzen diren beharrezkoak betetzen jarraitzen duela frogatzen duen dokumentazioa.

**14. artikulua.** Titulartasun aldaketak eta lizentziaren lagapena

1. Baimenean ageri diren pertsona fisiko edo juridiko eragileetan aldaketarik izanez gero, lurraldearen antolamenduaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernuako Departamentuari fede emanez jakinaraziko zaio, ondorio juridikorik izatez gero.

2. Salerosketa Lizentzia berriazkoa lagatzeko bide bakarra alde aurretik Nafarroako Gobernuan merkataritza gaietan eskudun den Departamentuari eskatzea da, eta baldintza hauek bete behar dira:

a) Lizentzia lortu zenetik gutxienez bost urte pasatuak izatea.

b) Nafarroako Gobernuak eskualdaketarako baimena ematea.

3. Elkartze edo xurgatzeen ondorioz sortzen den enpresak bereganatzen baldin badu enpresa elkartu edo xurgatutakoari emandako salerosketa lizentzia berriazko bat, Nafarroako Gobernuak ezeztatzen ahal du, baldin eta hura ematean betetzen ziren baldintzak betetzen ez badira, eta horrek ez du berekin ekarriko inolako kalteordain eskubiderik.

### III. TITULUA

#### Eragile eta operatzaileen eskubide eta betebeharrak

**15. artikulua.** Eragileen eta operatzaileen eskubideak.

Eragile eta operatzaileen eskubideak honako hauek dira:

1. Salerosketa-esparru honetan erabilgarri den legeriaren barruan beren jardueran libreki aritzea.

2. Udal planeamenduaren idazketa Udalez gaindiko Proiektu Sektorialaren aurreikuspenetara egokitzeko eskatzea.

3. Planeamenduan aurreikusitako sarbide eta zerbitzuak izatea.

**16. artikulua.** Eragile eta operatzaileen betebeharrak.

Eragile eta operatzaileen betebeharrak honako hauek dira:

1. Saltoki handia kokatua dagoen eremuko salerosketa-premietara egokitzen saiatuz bere jardueran aritzea.

2. Konkurrentzia desleial edo publizitate engainagarriko edozein jokabide saihestea, eta bereziki saltokia dagoen eremuko salerosketa-sektore baten iraupena arriskuan jar dezaketanak.

3. Jokabide monopolistiko edo merkatu-nagusitasunekoak saihestea.

4. Saltokiaren ezarpenak sortzen dituen hiritzinta-obra guztien gastuak bere kargura egitea, ingurumenaren gaineko eraginaren zuzenketatik sortutako gastuak finantzatzea eta bere kontura zirkulazioa eta eskaerak eta baimenak adierazten dutenaren arabera sarbideak antolatzea neurriak hartzea.

### IV. TITULUA

#### Arau-hausteak eta zehapenak

**17. artikulua.** Arau-hauste arinak

Arau-hauste arinak honako hauek dira:

1. Nafarroako Gobernuan eskumena duten Departamentuei beraiek beren eskumenak gauzatzeko eskatutako informazioa ez ematea.

2. Baimenaren baldintzak ez betetzea dakarten jardueretan aritzea, arau-hauste larri edo oso larriak ez baldin badira.

3. Lege honetan ezarritakoaren arabera larri edo oso larritzat hartzen ez diren beste gainerako arau-hausteak.

**18. artikulua.** Arau-hauste larriak

Arau-hauste larriak honako hauek dira:

1. Saltoki handi baten salerosketa-azalera garbia handitzea, horretarako baimenik izan gabe.



2. Eskualdeak lurralde eta ekologi aldetik duen antolamenduari kalte nabaria egitea.

**19. artikulua.** Arau-hauste oso larriak

Arau-hauste oso larriak honako hauek dira:

1. Urte beteko epean bi arau-hauste larri edo gehiago egitea.

2. Baimenik izan gabe saltoki handi bat abian jartzea.

3. Eskualdeak lurralde eta ekologi aldetik duen antolamenduari kalte nabari eta konponbiderik gabek egitea.

**20. artikulua.** Zehapenak.

1. Arau-hauste arinei ehun mila pezetatik milioi bat pezeta bitarteko isuna ezarriko zaie.

2. Arau-hauste larriengatik honako isun hauek ezartzen ahal dira:

a) Milioi batetik berrogeita hamar milioi pezeta bitarteko isuna.

b) Salerosketa Lizentzia berarizkoaren indaraldia etetea, hiru urtez gehienez ere.

3. Arau-hauste oso larriengatik ezartzen ahal diren zehapenak:

a) Berrogeita hamarretik ehun milioi pezeta bitarteko isuna.

b) Salerosketa Lizentzia berarizkoaren indaraldia etetea, bost urtez gehienez ere.

c) Salerosketa Lizentzia berarizkoa kentzea.

3. Zehapen bat foru lege honetan adierazten denaren arabera ezartzeak ez dakar berekin, inola ere, betebeharrak betegabeen exonerazioa, ez eta eginak izan daitezkeen kalteen ordaina eman beharra eta beste Lege batzuk babes harturik ezartzen diren zehapenak bete beharra ere.

**21. artikulua.** Zehapenaren zenbatekoa mailakatzeko faktoreak.

Zehapenaren zenbatekoa mailakatzeko, honako faktore hauek hartuko dira kontuan:

a) Saltokiak salmentarako duen azalera.

b) Arau-hausleak merkatuan duen nagusitasun egoera.

c) Arau-haustearen ondorioz lortutako etekin bidegabearen zenbatekoa.

d) Esparruko salerosketari egindako kaltea.

e) Arau-haustearen ondorioz eskualdearentzat ekologi eta lurralde antolamendu aldetik egindako kalteen larritasuna.

f) Arau-hausteen berregile izatea, salbu eta hori arau-haustearen ezaugarri denean.

**22. artikulua.** Eskumena eta prozedura

1. Zehapen espedienteen instrukzioa Nafarroak Gobernuan eskumena duen Departamentuak egingen du, arau-hausteak zein gai ukitzen duen kontuan harturik.

2. Zehapen espedienteak, gutxienez, arau-haustearen inguruabarrak zehazten dituen txosten tekniko bat izan beharko du, eskuratu ahal izan diren frogak guztiekin batera.

3. Prozedura bakoitzaren instrukzioa egiteko gehienezko epea sei hilabetekoa izanen da.

4. Foru lege honetan espresuki jasoa ez den guztian Guztientzako Administrazio Prozedura arautzen duen legerian ezarritakoa aplikatuko da.

**V. TITULUA**

**Parte-hartze eta kontsulta**

**23. artikulua.** Parte-hartzea

1. Saltoki handien antolamenduan interesa duten sektore sozial, ekonomiko eta instituzionalen parte-hartzearen printzipioa gutxietsi gabe egingen da.

2. Saltoki handien Batzorde teknikoa eratzen da, saltoki handien antolamenduan interesa duten sektore sozial, ekonomiko eta instituzionalen parte-hartze organo gisa.

3. Saltoki handien Batzorde teknikoan ordezkari gisa izanen dira, gutxienez, Foru Komunitateko Administrazioa, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbara Ofiziala, dendarien eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen defendatzaile diren erakunde adierazgarriak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.

**24. artikulua.** Kontsulta

Saltoki handien Batzorde Teknikoan zuzenean parte hartzeaz gain, 23. artikulua aipatzen dituen erakunde eta entitate adierazgarriak interesatu legitimo gisa onartuko dira Foru Lge honetan xedatutakoaren babesean tramitatzen diren prozeduretan.

**Xehapen gehigarriak**

**Lehena.** 1.000 metro karratutik 5.000 bitarteko azalera duten saltokiak irekitzeko, beharrezkoa da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari alde aurretik asmo hori aditzera ematea, eta baita haien mugapean saltokiak ezarri nahi diren Udalei ere.

Gainera, 2.500 metro karratuko azalera baino handiagoa duten saltokiak irekitzeko, Salerosketa Lizentzia berariazkoa eskuratu behar da.

**Bigarrena.** Foru lege honek indarra hartu aurretik bertan aurreikusitako aplikazio mugak gainditzen dituzten azalera dituzten saltokiei emandako salerosketa lizentzia berariazkoek baliozkoak izaten jarraituko dute. Hala ere, saltoki horien handitze edo aldaketak foru lege honetan ezarritakoari lotuko zaizkio.

**Hirugarrena.** Salerosketa Lizentzia berariazkoaren emate edo aldaketaren baldintzak, hirigintza edo lurralde antolamenduko aldaketarik berekin ez dakartenean, salerosketari buruzko legeria aplikagarrian xedatutakoaren menpe egonen dira.

#### **Xedapen iragankorrak**

**Lehena.** Foru lege hau ez zaie aplikatuko, batetik, lege honek indarra hartu aurretik salerosketaren arloan behin betiko ebazpena eman zaien saltoki handiei buruzko baimen espedientei.

Foru Lege hau ez zaie aplikatuko, bestalde, lege honek indarra hartu aurretik hirigintza edo lurralde antolamenduaren arloan behin betiko ebazpena eman zaien saltoki handiei buruzko baimen espedientei.

**Bigarrena.** Lehen Xedapen iragankorrean xedatutakoa ezertan galarazi gabe, ez da baime-nik ematen ahal saltoki handiak ezartzeko, Salerosketa Antolatego Zuzentzarauak onetsi aurretik edo, horiek ezean, foru lege honetako hirugarren

Xedapen iragankorrak aurreikusitako epea bete bitartean.

**Hirugarrena.** Foru lege honek indarra hartzen duenetik sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak foru lege honen 3. artikuluan adierazten diren Salerosketa Antolatzeko Zuzentzarauak pres-tatu beharko ditu.

**Laugarrena.** Foru lege honek indarra hartzen duenetik sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Txikizkako Salerosketaren Foru Legearen proiektua prestatuko du.

#### **Xedapen indargabetzaileak**

**Lehena.** Maitzaren 10eko 154/1993 Foru Dekretua, Azalera handiko instalazioen ezarpena lurralde eta hirigintza aldetik arautzen duena, espreski indargabetzen da.

**Bigarrena.** Halaber, indargabetu egiten dira foru lege honetan xedatutakoaren kontraesaneko-ak edo aurkakoak diren maila bereko edo behera-goko arau guztiak.

#### **Azken xedapenak**

**Lehena.** Nafarroako Gobernuari eta kasu bakoitzean eskudun diren Departamentuei baime-na ematen zaie, foru lege honetan adierazitakoa garatu eta gauzatzeko beharrezkoak diren egin-tzak eta xedapenak emateko.

**Bigarrena.** Foru lege honek Nafarroako Aldiz-kari Ofizialean argitaratu eta biharamunean iza-nen du indarra.

## Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2000ko abenduaren 26an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.-** Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko foru lege proiektua ohiko prozeduraz bideratzea.

**Bigarrena.-** Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordearen esku uztea.

**Hirugarrena.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2001eko otsailaren 23ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren Testu Bategina abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen. Bertan ezartzen da funtzio publikoaren arloko zenbait xedapen foru lege mailako arauen bidez onetsi behar direla.

2000 eta 2001. urteetan Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileek izanen dituzten lan baldintzei buruz Administrazioak eta sindi-

katuek 2000ko apirilaren 4an sinatutako Hitzarmena bi parte horien arteko negoziazio prozesuaren emaitza izan da.

Hitzarmen horretako alderdi batzuk arauetan bildu behar dira. Gero, Hitzarmenaren 19. atalaren arabera, Administrazioak dagokion maila emanen dio arau horietako bakoitzari, behar bezala onetsi eta indarra hartzeko.

2000ko apirilaren 17an, Nafarroako Gobernuak berretsi zuen 2000ko apirilaren 4ko Hitzarmen hura eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari agindu zion hura betearazteko beharrezko neurri eta ekimenak jar zitzala abian, hala legezkoak nola erregelamenduzkoak, kasuan-kasuan behar den organoak onetsi eta gero indarra har zezaten.

Hitzarmenean interes partikularreko borondatezko eszedentzia kasuetan jatorrizko lanpostua urte bat eta erdiz erreserbatzeko aukera biltzen da eta, bestalde, azaroaren 5eko 39/1999 Legean aurreikusitakoa aplikatzeko behar diren aldaketak egiten dira, langileek batera eraman ahal izan ditzaten laneko eta familiako eginkizunak.

Horri gagozkiola, azaroaren 5eko 39/1999 Legeak Funtzio Publikoa Erreformatzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 29.4 artikulua aldatu du, seme-alabak zaintzeko eszedentziaren gainekoa hain zuzen. Horren ondorioz, hura baliatzeko arauak zehaztu dira eta eskatzeko arrazoi bat gehiago sartu, hots, beren buruaz baliatzeko gauza ez diren ahaideei laguntzea.

Azkenik, behin eta berriz aipatzen ari garen Hitzarmen horren 9. atalean, zenbait langile-talde C mailan sartzeari buruzko horretan, ezartzen da foruzainak, suhiltzaileak, ingurugirozainak, mendi zaindarioordeak eta puerikulturako laguntzaileak, 2001eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, C mailan sar daitezzen proposatzeko arau-legeen proiektuak izapidatuko direla. Aldaketa horrekin batera langileek egun jasotzen dituzten osagarriak ere moldatuko dira, aldaketa horrek, ahal bada, kostu ekonomikorik izan ez dezan. Hori guztia hitzarmena sinatu duten sindikatuekin negoziatuko da.

Kontuan harturik Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legearen arabera, foruzaintzako eta udaltzaintzako arauak berdinak direla, bidezko da C mailaren aldaketak bi langile-talde horietan izanen duen eragina berdina izatea.

Bestalde, beharrezkoa da Langileriaren Estatutuaren 7.a) eta 10. artikulua aldatzea, neurri fiskal, administratibo eta sozialei buruzko abenduaren 29ko 55/1999 Legeak Europako Batasuneko kide diren beste estatuetao herritarrak funtzio publikoaren zenbait sektoretan sartzeko bidea arautzen duen abenduaren 23ko 17/1993 Legean egin dituen aldaketetara egokitzeko.

Halaber, Langileen Estatutuaren 7.b) artikulua aldatuko da, langile-talde batzuetan sartzeko erregelamenduz ezarrita dagoen gehieneko adin-mugari lege mailako estaldura emateko.

Azkeneko xedapenetan zazpigarrenari bigarren lerroalde bat erantsi zaio ezintasunak dituzten funtzio publikoan sartzeko aukerak zabaltzeko asmoz, izan ere, bertan ezartzen da lanpostu hutsak aukeratzeko orduan lehentasuna izanen dutela txanda libreko izangaien aurretik.

Bestalde, zenbait langile-talde C mailan sartzearen ondorioz, lanpostu horiek betetzeko araubidean eta haien ordainsarien sisteman ere aldaketa batzuk egin behar dira. Horretarako, Langileen Estatutuaren hamabosgarren xedapen gehigarriari, non suhiltzaileen sarjentu-lanpostuak betetzeko bidea arautzen baita, lerroalde bat erantsi zaio eta Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legearen 32, 34.3, 35, 37, 40, 46.4 eta 46.6 artikulua bes-tela idatziko dira.

Azkenik, egoki da langileriaren gaineko hainbat neurri biltzen dituen testu honetan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berezia onesten duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 29.1.c) eta 30. artikuluen aldaketa ere sartzea. Aldaketa horri esker, aipatu erakunde autonomoari ahalmena ematen zaio lanaldi partzialeko langileak kontrata ditzan.

## I. KAPITULUA

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginean sartu diren aldaketak.

**1. artikulua.** 7. artikulua honela geldituko da:

"7. artikulua.

Hautapen probetan onartua izateko, honako beharkizun hauek bete beharko dira:

a) Espainiako nazionalitatea izatea.

Europako Batasuneko zuzenbideari jarraikiz, Europako Batasuneko kide diren beste estatuetao nazionalitatea dutenek ere sartzea izanen dute

lanpostu publiko guztietan, espainiarrei eskatzen zaizkien baldintza berberetan, salbu eta botere publikoan zuzenean edo zeharka parte hartzea dakarten lanpostuetan eta Estatuaren edo Administrazio Publikoen interesak defendatzea helburu duten eginkizunetan.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa aplikatuko zaie, orobat, espainiarren eta Europako Batasuneko beste estatu bateko nazionalitatea dutenen ezkontideei, zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude, hala nola euren oinordekoei eta ezkontidearen oinordekoei ere, zuzenbidearen arabera bananduta ez badago, baldin eta oinordekoak 21 urtetik beherakoak badira edo, zaharragoak izanda ere, haien bizkar bizi badira.

Orobat aplikatuko zaie, Europako Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko Hitzarmenen arabera, langileen zirkulazio librea onartzen duten herrialdeetako biztanleei.

Nafarroako Administrazio Publikoek, nor bere eskumenen arabera, zehaztu beharko dute zein diren Europako Batasuneko beste estatuetao nazionalitatea dutenek betetzerik ez duten lanpostuak.

b) Adinez nagusia izatea eta erregelamenduz ezarritako adinetik beherakoa, horrelakorik finkatzen baldin bada.

c) Eskatutako titulua edukitzea edo, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean, hura eskuratzeko egoeran izatea.

d) Kasuan kasuko eginkizunetan aritzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo baztertua ez izatea eta Administrazio Publikoren bateko zerbitzutik berezia ez izatea."

**2. artikulua.** 10. artikulua honela geldituko da:

"10. artikulua.

Funtzionario izaera honako kasuetan galduko da:

a) Norberak propio eskatuta.

b) Espainiako edo Europako Batasuneko beste estatu bateko nazionalitatea galdutakoan, salbu eta, horrekin batera, kide den beste estatu batekoa hartzen baldin bada.

Estatutu honetako 7. artikuluko a) atalean xedatutakoaren arabera, lanpostu publiko batean espainiarren baldintza berberetan sartzea ahalbidetzen duten baldintzetako bat galdutakoan, salbu eta interesatuak a) atalean adierazten diren beharkizunetako bat betetzen baldin bada.

c) Disziplina espediente baten bidez edo epai judizial irmo baten bidez zerbitzutik bereizitakoan.

d) Estatutu honetako 26.3 eta 27.7 artikuluetan zehaztutako kasuetan".

**3. artikulua.** 26. artikuluko 1. ataleko c) letra honela geldituko da:

"c) Funtzionarioaren interes partikularrengatik. Jatorrizko lanpostua hemezortzi hilabetez gordeko da, zerbitzuaren beharrek horretarako bidea ematen badute eta interesatuak egiaztatzen baldin badu eskaera egin aurreko bi urteetan, gutxienez, jardunean edo horren antzeko lan egoera batean aritu dela".

**4. artikulua.** 27. artikulua honela geldituko da:

"27. artikulua.

1. Funtzionarioak eskatuta, eszedentzia berezia onartu ahalko da, kasuan-kasuan ezartzen den eperako, honelako kausa hauek egiaztatuz gero:

a) Hiru urterako, gehienez, seme-alaba bakoitzaren zaintzeko, naturalak zein adoptatuak, hala nola adoptatu aurreko harrera-fasean daudenak eta babespean betiko hartzen direnak ere. Hiru urte horiek haurra jaiotzen denetik edo, bestela, epaileen edo administrazioaren ebazpenaren egunetik aurrera kontatuko dira.

b) Hiru urterako, gehienez, funtzionarioaren kargura dagoen odoleko edo ezkontzako ahaideren bat zaintzeko, bigarren gradu artekoa —horiek barne—, baldin eta adinagatik edo istripu edo eritasun baten ondorioz bere kasa bizitzeko gauza ez bada eta lansari erregularrak jasotzen ez badu.

2. Eszedentzia berezia hartzeko kausa den subjektu bakoitzeko eszedentzialdi bakarra onartuko da. Beste subjektu eragile batek beste eszedentzia berezi baterako bide ematen badu, hura hastearekin batera ordura arte disfrutatzen ari zen eszedentzia amaituko da.

3. Eszedentzia mota hau funtzionarioen banakako eskubidea da. Subjektu eragile berak bi funtzionarioentzako eskubidea ahalbidetzen baldin badu, kasuan kasuko Administrazio Publikoak eskubidea izanen du bi funtzionarioek aldi berean erabili behar duten eszedentzialdia mugatzeko, zerbitzuaren beharrek direla-kausa arrazoi justifikaturik baldin badago.

4. Kasu guztietan, eszedentzia berezia emateko, funtzionarioak aitortu beharko du bitartean ez duela beste jarduera profesionalik edo lanik egin behar.

5. Eszedentzia berezia dauden funtzionarioek jatorrizko lanpostua gordetzeko eskubidea izanen dute, baina ez dute eskubide ekonomikorik sortuko. Dena den, antzinatearen ondorioetarako, egoera horretan ematen duten aldi osoa aintzat hartuko zaie. Eskubide pasiboen ondorioetarako, haien babes sozialeko arautegian ezarritakoari jarraikiko zaio.

6. Eszedentzia berezia duten funtzionarioek eszedentzia aldia bukatu eta hurrengo egunean hasi beharko dute lanean jatorrizko lanpostuan.

7. Eszedentzia bereziko aldia bukatu gabe ere, interesatuak noiznahi eskatu ahalko dute jardunean hastea, baina kausa berean oinarritutako beste eszedentziarik ezin izanen dute eskatu. Lanean berriz hastea erabakitakoan, aurreko artikuluko 3. atalean ezarritakoari jarraikiko zaio".

**5. artikulua.** Zazpigarren xedapen gehigarriari bigarren leerroalde bat erantsi zaio, honako hau dioena:

"Aurreko leerroaldean ezarritako ezintasun-maila izanda, administrazioan sartzeko deialdi bateko lanpostua lortzen duten izangaiak, lanpostu hutsak aukeratzeko orduan, txanda irekiko izangaien aurretik egonen dira, zein txandatik sartu diren kontuan hartu gabe.

**6. artikulua.** Hamabosgarren xedapen gehigarriari bigarren leerroalde bat erantsi zaio, honako hau dioena:

"Nafarroako Administrazio Publikoetako Suhiltzaileen sarjentu-lanpostuak gora egiteko lehiaketa bidez beteko dira. Deialdi horretan Nafarroako edozein administrazio publikotan sarjentu-lanpostuetan ari diren funtzionarioek parte hartu ahalko dute, lanpostu horretan, egiazki, hiru urteko zerbitzualdia eginga dutela egiaztatzen baldin badute".

## II. KAPITULUA

Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legean egin diren aldaketak

**7. artikulua.** 32. artikulua honela geldituko da:

"32. artikulua.

Nafarroako Polizia Kidegoetan sartzeko, honako titulu hauek eskatuko dira, gutxienez:

a) Polizia, kabu eta sarjentu lanpostuetarako, Batxilergoko edo goi mailako teknikariaren titulua, edo horien baliokidea.

b) Ofizial karguetarako, unibertsitateko goi mailako titulua edo horren baliokidea izatea, edo bestela, Estatuko Segurtasun Kidego eta Indarre-

tako edo Indar Armatuetakoko buru, ofizial edo agintaria izatea".

**8. artikulua.** 34. artikuluko 3. atala honela geldituko da.

"3. Aurreko atalean aipatu oposizio-lehiaketan parte hartzeko, egiaztatu beharko da aurre-aurreko lanpostuan, gutxienez, bi urteko antzintasuna duela".

**9. artikulua.** 35. artikulua honela geldituko da:

"35. artikulua.

1. Foruzain-ofizialen lanpostu hutsak honela beteko dira:

a) Ehuneko berrogeita hamar barneko igoera txandan, Foruzaingoko kideen arteko oposizio-lehiaketa bidez.

b) Beste ehuneko berrogeita hamar Estatu Seguratasun Kidego eta Indarretako edo Indar Armatuetakoko buru, ofizial edo agintarien arteko oposizio-lehiaketa bidez.

2. Aurreko atalean ezarritako ehunekoak aplikatzeko, sortzen diren bi lanpostu hutsetatik lehenengo barne igoerarako izanen da eta bigarrena aurreko ataleko b) letran ezarritako txandarako.

3. Artikulu honetako 1. ataleko a) letran aipatu oposizio-lehiaketan parte hartu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Aurre-aurreko lanpostuan, gutxienez, bi urteko antzintasuna izatea.

b) Lanpostu horretarako eskaturiko titulu akademikoa izatea.

4. Udaltzaingoko Kidegoetako Ofizialen lanpostu hutsak arestiko atalean zehazturiko baldintzak betetzen dituzten udaltzainen artean beteko dira.

5. Arestiko 1. eta 4. ataletan ezarritakoari jarraikiz betetzen ez diren ofizial lanpostuak txanda irekian eskainiko dira, 32. artikuluko b) ataleko baldintzak betetzen dituzten artean bete daitezzen".

**10. artikulua.** 37. artikulua honela geldituko da:

"37. artikulua.

Nafarroako Administrazio Publikoen menpeko Polizia Kidegoetako funtzionarioak maila hauetan sailkatuko dira:

a) Ofizialak: A maila.

b) Poliziak, kabuak eta sarjentuak: C maila".

**11. artikulua.** 40. artikulua honela geldituko da:

"40. artikulua.

Lanpostu hutsak sortzen direnean, mailaz gora egiteko modua oposizio-lehiaketa izanen da, kasuan kasuko Kidegoan maila apalagoetan dauden funtzionarioen artean, 35. artikuluko 3. atalean ezarritakoari jarraikiz".

**12. artikulua.** 46. artikuluko 4. atala honela geldituko da:

"4. Lanpostuaren osagarria zailtasun edo erantzukizun berezia duten lanpostuei emanen zaie, hala nola bizkartzaintza zerbitzuko, prestakuntza tekniko berezia behar dutenei eta unitate organikoetako buruei. Kasuan kasuko mailaren oinarritzko soldataren % 85ekoa izanen da, gehienez".

**13. artikulua.** 46. artikuluko 6. atala honela geldituko da.

"6. Bateriaezintasunaren osagarria, eginkizunak ikusita, haren beharra duten lanpostuei esleituko zaie. Kasuan kasuko mailaren oinarritzko soldataren % 25ekoa izanen da, gehienez".

### III. KAPITULUA

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berezia ezartzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legean egindako aldaketak.

**14. artikulua.** 29. artikuluko 1. ataleko c) letra honela geldituko da:

"c) Behar bezala justifikatzen diren beste langile-falta batzuei erantzutea, lanaldi osokoak zein partzialekoak, betiere behar horiei erantzuteko langile finkorik ez dagoela egiaztatzen baldin bada".

**15. artikulua.** 30. artikulua honela geldituko da:

"30. artikulua.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartzten diren langileek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko funtzionario-izaera izanen dute, salbu eta lanaldi partzialeko lan-kontratudun finkoek. Dena den, sartzten diren langile guztiei Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorra aplikatuko zaie.

#### IV. KAPITULUA

Langile-talde batzuk C mailan sartzea.

**16. artikulua.** Foru lege honek indarra hartze-ko unean, kabu edo polizia lanpostuetan ari diren Foruzaingoko edo Udaltzaingoetako kideak Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legearen 37. artikuluan ezarritako sailkapenaren C mailan sartuko dira.

**17. artikulua.** Foru lege honek indarra hartze-ko unean, suhiltzaile, zerbitzu osagarrietako suhiltzaile, suhiltzaile gidari, zerbitzu osagarrietako suhiltzaile gidari, suhiltzaile kabu edo zerbitzu osagarrietako suhiltzaile kabu lanpostuetan ari diren Nafarroako Administrazio Publikoen eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileak Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatuan ezarritako sailkapenaren C mailan sartuko dira.

**18. artikulua.** Foru lege honek indarra hartze-ko unean, ingurugirozain, mendi zaindario, puerikulturako laguntzaile edo Puerikultura-Klinikako laguntzaile lanpostuetan ari diren Nafarroako Administrazio Publikoen eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileak Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatuan ezarritako sailkapenaren C mailan sartuko dira.

**19. artikulua.** Foru lege honetako IV. kapitulu-  
an arautu diren sailkatzeen ondorio ekonomiko eta administratiboek 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen dute indarra. Aldaketarekin batera, lanpostu horien egungo lansari osagarri guztiak moldatuko dira, izan ere, sailkatze berria izan arren, langile horiek gaur egun jasotzen dituzten guztirako lansarrietan (oinarrizkoak zein osagarriak) ez da igoerarik egongo, graduari dagozkion ordainsariak izan ezik.

#### Xedapen gehigarriak

**Lehena.** Foru lege honen bidez sailkapen berria duten Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko, foru lege honek indarra hartu ondoren onesten diren deialdietara aurkeztu diren izangaiei, arau indardunetan ezarritako baldintzez gainera, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuko 15. artikuluko 2. atalean C mailakoentzat ezarritako titulua edukitzea ere eskatuko zaie.

**Bigarrena.** Puerikulturako laguntzaile eta Puerikultura-Klinikako laguntzaile lanpostuetan ari direnak C mailara igarotzearekin batera, lanpostu horien izena ere aldatuko da. Haurtzaindegi bati atxikita dauden lanpostuei "haurren hezitzaile" izena emanen zaie eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen beste zentro edo zerbitzu bati atxikitakoei "hezitzaile".

#### Xedapen iragankorrak

**Lehena.** Interes partikularreko borondatezko eszedentzietan lanpostuaren erreserbaldia hemezortzi hilabetera zabaltzeko Foru Agindu honetan ezarritako bidea foru lege honek indarra hartu aurretik deklaraturako kasu guztiei aplikatuko zaie, betiere egun hartan orain arte hitzartutako erreserbaldia —urtebekoa— amaitua ez badago.

**Bigarrena.** Interes partikularreko borondatezko eszedentzia 2000. urtean onartua duten langileek, eman zitzaie egunean eszedentzia berezia baliatzeko foru lege honetan ezarri diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen baldin badute, eszedentzia-mota aldatzea eskatu ahalko dute, hasierako deklarazioa egin zenetik aurrerako ondorioekin.

**Hirugarrena.** Foru lege honen arabera sailkapen berria duten lanpostuak betetzeko deialdia foru lege honek indarra hartu aurretik argitaratua baldin bada, deialdiari aurreko arautegia aplikatuko zaio, baina izendatu eta kargua hartzen duten izangaia C mailan sartuko dira, kasuan kasuko administrazio publikoaren ekinbidez.

#### Xedapen indargabetzailea

**Bakarra.** Indarrrik gabe utzi dira foru lege honetan xedatutakoaren aurka dauden maila bereko edo apalagoko xedapenak.

#### Azken xedapenak

**Lehena.** Nafarroako Gobernuari ahalmena eman zaio foru lege hau zuzen betearazi eta garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

**Bigarrena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, salbu eta 19. artikuluan xedatutakoak.





## Nafarroan ikus-entzunezko jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duen Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2000ko abenduaren 26an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroan ikus-entzunezko jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

### ERABAKIA:

**Lehena.-** Nafarroan ikus-entzunezko jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duen Foru Lege proiektua ohiko prozeduraz bideratzea.

**Bigarrena.-** Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Herrilan eta Azpiegiturak Batzordearen esku uztea.

**Hirugarrena.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2001eko otsailaren 23ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## Nafarroan ikus-entzunezko jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duen Foru Lege proiektua

### ZIOEN AZALPENA

I. Telekomunikazioen arloa liberalizatu delarik eta, zehazkiago, ikus-entzunezkoen arloko teknologiak aurrerabide handia egin duelarik, erroka bereziki larria sortu zaie bai Estatuari eta bai Komunitate Autonomoei. Hortaz, ezinbestekoa da behar diren neurriak hartzea gero batean sortzen diren premiak asetzeko, teknologia berriak erabil-

tzeak ezin gehiagoko inportantzia baitu bai ekonomia eta gizartearen arloan eta bai kulturaren eta aisiarenean.

II. Ikus-entzunezkoen sektoreak gaur duen erregimen juridikoak urtarrilaren 10eko 4/1980 Legea du abiaburu, Irrati eta Telebistako Estatuaren gainekoa, zeinak irrati eta telebista bidezko hedapenari Estatuaren titulartasunpeko zerbitzu publiko funtsezkoen itxura eman zion, Konstituzio-ko 128.2 artikulua agintzen zuen bezala.

Ondoren, eta arestian esandako legea garatzeko, zenbait lege eman dira, haietako asko partez nahiz osorik indargabetuak. Hona aipagarrietako batzuk: abenduaren 26ko 46/1983 Legea (esku ematen dio Gobernuari behar diren neurriak hartzeko Estatuaren Titulartasunpeko Hirugarren Kanal bat abiarazteko eta hura eraukipen erregimenean ematea Komunitate Autonomo bakoitzaren lurraldean); 10/1998 Legea, maiatzaren 3koa, Telebista Pribatuaren gainekoa (ezartzen du telebistaren zerbitzu publiko funtsezkoa besteren bidez kudeatuko dela, sozietate anonimoen kontu utzirik, Administrazio eraukipen gisa); 37/1995 Legea, abenduaren 12koa, Satelite Bidezko Telekomunikazioei buruzkoa (ezartzen du zer araubide berriazko izanen duen zerbitzu horrek, publikotasuna galtzen baitu nazioarteko itun eta hitzarmenen araberrako komunikazio-sateliteak erabiltzen direnean); 42/1995 Legea, abenduaren 22koa, Kable bidezko Telekomunikazioen gainekoa, eta 66/1997 Legea, abenduaren 30ekoa, Neurri fiskal, Administrazio eta Sozialen gainekoa, zeinak bere 44. xedapen gehigarrian arautzen baitu soinu-zuko irrati-hedapen digital lurrekoaren eta telebista digital lurrekoaren erregimen juridikoa.

Lege testu horiek, maila apalagoko beste osagarri-zuko batzuek eta zenbait lege berriazkok (azaroaren 11ko 34/1988 legea, kasu, Publizitateari buruzko Lege Orokorra), ezartzen dute telebista eta soinu-zuko irrati zabalpena gizarte komunikabideak direla, alderdi teknikoak ezertan eragotzi gabe, horiek honako testuetan arauturik baitaude, besteak beste: apirilaren 24ko Telekomunikazioei buruzko 11/1998 Lege Orokorra, zeinak, hala ere, ez duen indargabetzen aurreko 31/1987 legea, abenduaren 18koa, Telekomunikazioak Antolatze-ko, soinu-zuko irrati zabalpenari eta telebistari dagokienez.

III. Nafarroako Foru Komunitatean, Espainiako Konstituzioak VIII. tituluko III. kapituluko 149.1-27

artikuluaren agintzen duenaren arabera eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoko 55.1 artikulua agintzen duenarekin bat, (zeinean ezartzen baita Nafarroari dagokiola Irrati Zabalpen eta Telebistaren Erregimenari buruzko lege garapena egin eta betearaztea, Irrati eta Telebistaren Estatutu Juridikoa Arautzeko Legeak ezarri bezalako kasu eta moduetan, honako foru lege hau ematen da, helburua delarik Nafarroako Foru Komunitatean ikus-entzunezko jardueraren erregimen juridikoa arautzea, zein ere zabalpen bide tekniko eta kudeaketa modu erabiltzen den.

Foru Lege honek uztailaren 12ko 25/1994 Legeak agintzen duena hartzen du abiagarri, zeinak arautzen baitu nola eratxiki Espainiako Ordenamendu Juridikoari 89/552/EEE zuzentaraua, estatu erkideek telebista eta irrati bidezko zabalpen jardueraren gainean hartzen dituzten lege, erregelamendu eta administrazio xedapenak koordinatu beharraren gainekoa, ekainaren 7ko 22/1999 Legeak aldatua.

IV. Foru lege honek egitura hau du: sei kapitulu, hiru xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat eta hiru azken xedapen.

1. I. kapituluak, "Xedapen Orokorrez" ari dela, Legeak zer helburu dituen biltzen du, zer lurralde esparrutan aplikatzen den eta ikus-entzunezko jarduerak zer programazio irizpide bete behar dituen.

Lehenbizikorik, foru lege hau Nafarroako Foru Komunitateko lurraldeaz barneko soinuazko irrati zabalpen eta telebista zerbitzuei aplikatuko zaie, zein ere zabalpen bide erabiltzen duten; horren barrenean zabalagoko estaldura duten komunikabideek berariaz Nafarroako lurralderako egiten dituzten deskonexioak ere sartzen dira. Honako irrati zabalpen eta telebista zerbitzuei ere aplikatuko zaie: Nafarroako Foru Komunitateak berak zuzenean edo bere lurralde autonomikoan titulu gaitasun-emailea eman dien operadoreek egiten dituztenak.

Bigarrenik, Nafarroako Foru Komunitateko ikus-entzunezko jarduerak Konstituzioko printzipioen arabera beharko du, eta zehazkiago, Nafarroako Foru Komunitatearen nortasuna, instituzioak eta sinboloak errespetatu beharko ditu.

2. II. kapituluak telebistako publizitatea eta telebistako patrozinoak hartzen ditu gai eta bai bata zein besteak erregulatzeko arauak ematen. Horrela bada, Publizitateari buruzko Lege Orokorra agintzen duenaz gainera, finkatzen da zein kasutan joko den telebista bidezko publizitatea bidegabekotzat, eta bai debekatzen ere zenbait

publizitate helburu, hala nola zigarroak eta gainerrako tabako gaiak.

Edari alkoholikoen publizitatea irizpide hertsien azpian ezartzen da eta zehazten da zein pertsona mota ezin hartuko dituen helburu (adin txikikoak), zein mezu izanen diren debeku (arrakasta, errendimenduaren hobekuntza eta abar) eta zein xede ez diren bilatuko.

Zenbait arau finkatzen ere dira erregulatzeko zenbat denbora eman daitekeen publizitaterako eta telesalmentarako, eta telebista patrozinoaren arauak ere bai.

3. III. kapituluak adin txikikoak telebista programazioaren osotasunean nola babestu hartzen du gai, haien garapen fisiko, mental eta moral egokia babestu beharrez; IV. kapituluak ikusleek telebistako programazioa aurrez jakiteko duten eskubidea aipatzen du.

4. V. kapituluak, eta ekainaren 7ko 22/1999 Legeak komunitate autonomoei ematen dien zehapen eskumena lagun, ezartzen du zer zehapen araubide izanen den eta bai zehapenak zer gradutan jarriko diren eta zer ondorio izanen dituzten.

5. Azkenik, VI. kapituluak Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen da, kontsulta organotzat eta bai, halaber beregaingo agintedun organotzat, Nafarroako ikus-entzunezkoen sektoreko edukiei erreparatzeko, irudia eta soinua transmititzeko zein ere bide erabiltzen diren gaurko teknologia berriak ikus-entzunezkoen programazioa eta informazio saioak zabaltzeko ematen dituen aukeretatik.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak ikus-entzunezkoen gaineko agintea izanen du Nafarroan eta lege indardunak, bai Europakoak nola Espainiakoak, bete daitezzen begiratzeko ardura. Begiratzeko ere du komunikabideetan, bai barnez eta bai kanpoan aniztasuna egon dadin, programazioa objetiboa eta gardena izan dadin, informazioa zintzoa eta informazio bideek zerbitzu publikoa emateko duten eginkizuna bete dadin.

## **I. KAPITULUA** **Xedapen orokorrak**

### **1. artikulua.** Helburua

Foru lege honek honako helburuak ditu:

1. Nafarroako Foru Komunitatean ezartzea zer erregimen juridiko izanen duen ikus-entzunezko jarduerak, zein ere den zabalpen bide teknikoa eta kudeaketa modua.

2. Telebistako publizitatea arautzea, era eta modu guztietan.

3. Telebistako patrozinioa erregulatzea.

4. Erabiltzaileen interes bidezkoak defendatzea eta bereziki adin txikikoenak, haien garapen fisiko, mental eta moral egokia babesteko.

5. Ikus-entzunezkoen gaietako Kontseilu arau-emaile bat sortzea.

Hori dena, ezertan galarazi gabe publizitate, osasun, medikamentu eta kontsumitzaile eta erabiltzaileak babestearen gaineko legeak aplikatzea.

## **2. artikulua.** Aplikazio eremua.

Foru Lege hau Nafarroako Foru Komunitateko lurraldeaz barneko soinu-zuko irrati zabalpen eta telebista zerbitzuei aplikatuko zaie, zein ere zabalpen bide erabiltzen duten; horren barrenean zabalagoako estaldura duten komunikabideek berariaz Nafarroako lurralderako egiten dituzten deskonezioak ere sartzen dira. Honako irrati zabalpen eta telebista zerbitzuei ere aplikatuko zaie: Nafarroako Foru Komunitateak berak zuzenean edo bere lurralde autonomikoan titulu gaitasun-emailea eman dien operadoreek egiten dituztenak.

## **3. artikulua.** Programazioaren printzipioak.

Soinu-zuko irrati zabalpen eta telebista zerbitzuak ematen dituzten entitate edo eraukipen hartzaileen emisioak honako printzipio hauen mende egon behar dira:

a) Espainiako Konstituzioa eta eta Foru Komunitateko

arau indardunak mamitzen dituzten printzipio eta balioak errespetatzea, haien artean aipatzekoak pertsonen ohorea, intimitatea, norbere irudia, izen ona eta bizitza pribatua errespetatu beharra eta bai Konstituzioak aitortzen eta segurtatzen dituen eskubide eta libertateak.

b) Nafarroako Foru Komunitateko nortasuna, instituzioak eta sinboloak errespetatzea, eta beraz Foru Komunitateko lurraldea noiznahi errealitate beregain eta banakatuaren gisan aurkeztea, bai grafikoki eta bai deskripzioetan, ordenamendu juridikoarekin bat.

c) Aniztasun politiko, erlijiozko, sozial, kultural, ideologiko eta linguistikoa errespetatzea.

d) Informazioaren objetibotasuna, egiazkotasuna eta inpartzialtasuna begiratzea, eta bai informazioa eta iritzia ongi bereiztea, iritzia nork ematen dituen ongi identifikatzea eta iritzi horiek libre adierazten uztea, Konstituzioaren 20. artikuluko 4. ataleko mugen barrenean.

e) Gazteak eta haurrak babestea, lege indardunek agintzen dutenaren arabera.

f) Foru Komunitateko interesak defendatzea, hartarako hemengo gizarte taldeen parte-hartzea bultzatuz, kultura eta konbidentzia sustatu, bultzatu eta defendatzea helburu.

g) Berdintasunaren printzipioa eta jaiotzaz, arrazaz, sexuz edo inolako ingurubar pertsonal nahiz sozialengatik ez diskriminatze printzipioa errespetatzea.

## **II. KAPITULUA**

### **Telebistako publizitatea, telesalmenta eta telebistako patrozinioa**

**4. artikulua.** Zer publizitate eta telesalmenta ez diren zilegi.

1. Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1988 Legeko 3. artikulua aipatzen dituen publizitate moduez gain, honakoak ere ez dira behinere zilegi: Giza osasunerako edo segurtasunerako kalte diren jokoerak bultzatzen dituzten telesalmenta eta publizitatea, edo ingurumenerako kalte direnak, pertsonen duintasunari edo haien sinismen erlijioso nahiz politikoei zor zaien errespetua hondatzen dutenak edo pertsonak jaiotzaz, arrazaz, sexuz edo beste edonolako inguruabar pertsonal nahiz sozialengatik diskriminatzen dituztenak.

Orobat, ez dira zilegi indarkeria edo jokaera antisozialak bultzatzen dituzten telesalmenta eta publizitatea, beldurra edo siniskeria erabiltzen dutenak, edo abusuak, arinkeriak, utzikeriak edo portaera agresiboak susta ditzaketanak.

Debeku izanen ere dira pertsonak nahiz animaliak krudelki edo gaizki tratatzera bultzatzen duten telesalmenta edo publizitatea, edo ondasun kultural nahiz naturalak suntsitzera.

2. Publizitateak eta telesalmentak ez dute erabiliko teknika subliminalik; publizitate subliminala definitzeko Publizitateari buruzko aipatu Lege Orokorrean jasotzen diren elementuak hartuko dira halakotzat.

**5. artikulua.** Zer publizitate eta telesalmenta diren debeku.

1. Publizitateari buruzko azaroaren 11ko 34/1988 Lege Orokorreko 8. artikulua agintzen duenaz gain, honako publizitate eta telesalmenta ere debeku dira telebistan:

a) Zigarroak eta beste tabako gaiak zuzen nahiz zeharbidez saltzeko publizitate eta telesalmenta mota guztiak.

b) Nahitaez mediku errezeta behar duten medimakentu eta tratamendu medikoen publizitate eta telesalmenta zuzen nahiz zeharbideko guztiak.

c) Funtsean edo gehienbat eduki politikoa duen publizitatea, edo eite horretako helburuak iritsi nahi dituen, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoak agintzen duena ezertan galarazi gabe.

d) Medikamentu, tratamendu mediko eta sendagaien telesalmenta.

2. Publizitate eta telesalmenta disimulatuak debeku dira.

**6. artikulua.** Edari alkoholikoen publizitate eta telesalmenta.

1. Debeku dira hogeit hamar gradu baino gehiagoko edari alkoholikoak zuzen nahiz zeharbidez saltzeko publizitate eta telesalmenta mota guztiak.

2. Gainerako edari alkoholikoen publizitate eta telesalmentak honako printzipio hauek begiratu behar ditu:

a) Adin txikikoak ezin hartuko ditu berariaz helburutzat eta ez edari alkoholikoak hartzen ari direla aurkeztuko.

b) Alkohol kontsumoa eta gorputz errendimendua edo ibilgailu gidatzearen hobekuntza ez dira loturik aurkeztuko; ez da aditzera emango alkohol kontsumoak arrakasta sozial edo sexuala ekartzen duela, ez eta sujerituko ere edari alkoholikoen efektu sendagarria edo lasaigarria dutela, edo problemak konpontzeko bide bat direla.

c) Ez dute bultzatuko alkohola neurritz gain kontsumitzera; alkoholik ez edateari ez diote irudi negatiborik erantsiko, eta ez dute aipatuko alkoholoduna izatea edari baten ontasuntzat.

**7. artikulua.** Publizitatea eta telesalmentako iragarkien identifikazioa eta kokaera.

1. Publizitate eta telesalmenta erraz antz emateko modukoak izan behar dira eta argiro bereiziko dira programetatik, hartarako bide optiko nahiz akustikoak erabiliz.

2. Publizitate eta telesalmentako iragarkiak bateraturik emitituko dira. Salbuespenez baizik ez da emitituko publizitate eta telesalmenta irakargi bakarturik.

3. Publizitate eta telesalmentako iragarkiak programen artean tartekatuko dira.

Hala ere, hurrengo artikuluan agintzen denarekin bat, zilegi izan behar da publizitate eta telesalmentako iragarkiak sartzeari programetan tartekatu

turik, betiere horrek programen batasunari kalte egiten ez badie eta haien kalitate edo balioa behar bezala ez badu, eta tartekaldi horiek egiteko programaren etenaldi naturalak erabiltzen badira, iraupena eta nolakotasuna kontuan hartuta, eta inoiz ere kasuko programetako titularren eskubideei eraso gabe.

4. Publi-reportajeak, telepromozioak eta oro har telebista iragarkiez besteko publizitate moduak emititzen badira, iragarki horiek beren ezaugarriengatik programazio direla sinistatzen badiezaioke ikusleari, denbora guztian eta erraz irakurtzeko moduan "publizitatea" dioen transparentzia bat jarriko zaio gainean.

5. Kirol saioetan zilegi izan behar da publizitate eta telesalmentako iragarkiak sartzeari, transparentziak edo beste edozein irudi tratamendu erabiliz, baina emititzen den gertaeraren bilakaera geldirik dagoen uneetan bakarrik, non eta gertaeraren ikuspena tratatzen ez den eta transparentziak pantallaren seiren bat baino gehiago hartzen ez duen.

Mezu horiek testu idatziak baizik ez dira izan behar eta ez dute izan behar beste inolako irudi erreal nahiz bizidundurik, markaren logotipo estatikoa besterik.

**8. artikulua.** Arau bereziak.

1. Beregaingo zatiak dituzten programetan, zati horien artean baizik ez da zilegi izan behar publizitate eta telesalmentako iragarkiak sartzeari.

2. Kirolari buruzko edo antzeko egitura duten gertaera edo ikuskizunei buruzko emisio edo programetan, beren osagaien artean denbora zerbait badute, tarte horietan baizik ez da zilegi izan behar publizitate eta telesalmentako iragarkiak sartzeari.

Aurreko lehen aldian esan behar den ez bezalako kirol saioetan, artikuluko honetako 3. ataleko lehenbiziko idatz-zatian finkatu behar den araua hartuko da aintzat; ez da zilegi izan behar, ordea, saioa interes handieneko uneetan etetea publizitate eta telesalmentako iragarkiak emititzeko.

Zilegi izan behar da publizitate eta telesalmentako iragarkiak kirol saioetan sartzeari saioko gertaeraren geldirik dagoen uneetan, betiere geldialdi horrek iraupen programatua badu.

3. Aurreko lehen aldian esan behar den ez bezalako programetan, publizitate eta telesalmentako iragarkiak sartzeko geldialdien artean gutxienez hogeit hamar minutuko denbora izan behar da, hurrengo lehen aldian agintzen dena ezertan galarazi gabe.

Zilegi izan behar da programa baten aurreko nahiz ondoko publizitatea eta telesalmenta emititu dene-

tik programan bertan publizitatea sartzeko lehen nahiz azken etenaldira arteko denbora hogeitun minutu baino gutxiagokoa izatea.

Programan behin gehienez, zilegi izanen da publizitate eta telesalmentarako bi etenaldiren arteko denbora hogeitun minutu baino gutxiagokoa izatea; ez, ordea, hamabost minutu baino gutxiagokoa, programako berezko etenaldiak errespetatzeko.

4. Zilegi izanen da ikus-entzunezko obrak, film luzeak adibidez, berrogeita bost minutu baino gehiagoko iraupen programatua dutenak, berrogeita bost minutuko aldi osoan behin etetea, eta beste etenaldi bat ere izanen da zilegi emisioaren iraupen programatu osoak arestian aipatu denbora-tarte horietako bitatik edo gehiagotatik gutxienez hogeitun minutu gora egiten badu. Etenaldi horiek obraren osotasuna eta balioa begiratzuz egiten dira eta ez da zilegi obrari kreditu titulua kentzea.

Atal honetan agintzen denetik kanpo uzten dira telesailak, serialak eta entretenimenduko emisioak, horiei artikuluko honetako gainerako ataletan agindutakoa aplikatuko baitzaie, hala tokatzen bada.

5. Ez da zilegi izanen informazio saioak, dokumentalak, erlijiozkoak edo haurrentzakoak publizitate eta telesalmenta sartzeko etetea, non eta iraupen programatua hogeita hamar minutu baino gehiagokoa ez den, zeren horretara artikuluko honetako 1., 2. eta 3. ataletan ezarritakoa aplikatuko baita.

6. Ez da zilegi izanen publizitate eta telesalmentarik sartzeko erlijio zerbitzuen emisioetan.

7. "Iraupen programatua" esaten denean, artikuluko honek agintzen dituenei begira, zera ulertu behar da: programak edo obrak irauten duen denbora tarte osoa, programan edo obran dauden publizitate tarteak barne direla.

Publizitate eta telesalmentako iragarkietarako denbora tarteetan, seinalea emititzeko baldintza teknikoek betiere errespetatuko dituzte kasuko zabalpen-bideari aplikatzeko zaion arau teknikoak ezartzen dituen parametroak. Telebista seinalea emititzeko gaitu diren operadoreek behar diren neurriak hartu beharko dituzte jatorrizko seinaleak tratatzeko prozesuek ez dezaten sortu ikuslearen belarrarian soinu mailako gora salto nabarmenik aurre-aurreko emisioaren aldean.

8. Foru lege honi dagokionez, uztailaren 12ko 25/1994 legeko 3. artikuluko ezartzen dituen definizioak aplikatuko dira (lege hori ekainaren 7ko 22/1999 legeak aldatu zuen).

**9. artikulua.** Publizitate eta telesalmentarako emisio denbora.

1. Edonolako publizitatea eta telesalmenta emititzeko denbora, artikuluko honetako 3. atalean arautu telesalmenta saioak kanpo direla, ez da osotara izanen eguneko emisioaren ehuneko hogeitun baino gehiagokoa.

Publizitate iragarkiak sartzeko emisio denbora ez da izanen eguneko emisioaren ehuneko hamabost baino gehiagokoa.

2. Egunaren zatiketako ordu natural bakoitzean, edonolako publizitate eta telesalmentako iragarkiak sartzeko denbora ez da izanen hamazazpi minutu baino gehiagokoa.

Muga hori begiratzuz, publizitate eta telesalmentako iragarkiak sartzeko denbora, autopromozioa kanpo dela, ez da izanen aldi bereko hamabost minutu baino gehiagokoa.

3. Telebista kanal bakoitzak zilegi izanen du gehienez eguneko hiru orduko telesalmenta saioak emititzea. Saio horiek gutxienez hamabost minutuko iraupen etengabea izanen dute eta telesalmentakotzat identifikatuko dira, erabat argiro, seinale optiko nahiz akustikoak erabiliz.

Telesalmenta hutsekoa ez den telebista kanal batek eguneko gehienez zortzi telesalmenta saio emititu ditzake.

4. artikuluko honi begira, ez dira publizitate hartuko zerbitzu publikoko iragarkiak, ez ongintza kutsukoak, dohainik emititzen direnak, eta ez telebista operadoreak bere programen gainean egiten dituenak.

**10. artikulua.** Publizitate eta telesalmenta kanalak.

1. 9. artikuluan telesalmentari jartzen zaizkion denbora mugak ez zaizkie aplikatuko telesalmentari hutserako diren kanalei.

Kanal horiek zilegi izanen dute publizitatea emititzea foru lege honetan ezarri bezalako muga eta baldintzetan. Ez zaie, ordea, aplikatuko 9. artikuluko 2. atalean aurreikusten dena.

Idatz-zati honetan aurreikusten den araubidea aplikatu ahal izateko, aipatu kanalek ez dute zilegi izanen publizitate eta telesalmentaz bestelako programarik emititzea.

2. 9. artikuluan publizitateari jartzen zaizkion denbora mugak ez zaizkie aplikatuko kanaleko titularraren produktu edo zerbitzuak sustatzeko publizitateari, hartan soilik aritzen diren kanaletan.

Kanal horiek zilegi izanen dute besteren publizitatea ere emititzea, foru lege honetan oro har publizitaterako ezarri bezalako muga eta baldintzetan.

Idatz-zati honetan agindutakoa aplikatu ahal izateko, klase hartako kanalek ez dute zilegi izanen autopromozioa eta besterentzako publizitateaz besteko programarik emititzea.

#### **11. artikulua.** Telebista patrozinoia.

1. Patrozinoiepeko telebista programek honako baldintzok bete beharko dituzte:

a) Patrozinoia eta patrozinaorea argiro identifikatuko dira, haien izena, logotipoa, marka edo bestelako igargarriak agertuz emisioaren hasieran, bukaeran edo bietan.

Patrozinoia eta patrozinaorea publizitateko etenaldietan ere argiro identifikatuko dira eta bai patrozinoiepeko programan zehar ere, noizean behin eta programaren garapena tratatu gabe.

Identifikazio horretan ez da zilegi izanen publizitate mezurik sartzea patronizadorearen nahiz hirugarren baten produktu edo zerbitzuak erosi edo kontratatzea zuzen nahiz zeharbidez bultzatzeko asmozkorik.

b) Ez da zilegi izanen patronizadoreak patrozinoiepeko emisio baten edukia eta programazioa halako moduan moldatzea non telebista operadorearen beregaintasun editorialak kalte hartzen duen, eta ez du bere produktu edo zerbitzuak nahiz hirugarren batenak haien sustapen-aipu zehatzak eginaz erosi edo kontratarazteko moduko mezurik izanen, salbu eta publizitate eta telesalmentarako denboran, 9. eta 10. artikuluetan arautu bezala.

2. Lege honetako 4. eta 5. artikuluek aginduta publizitate debekua duten produktu-zerbitzuak egin edo ematea jarduera nagusia duten pertsona fisiko nahiz juridikoek ez dute zilegi izanen telebistako programak patronizatzea. Hala ere, zilegi izanen da medikamentuak, sendagaiak edo tratamendu medikoak egin, banatu edo saltzen aritzen diren entitateek telebistako programak patronizatzea, non eta programa horietan patrozino entitatearen izena besterik aipatzen ez den, bere produktu edo zerbitzuak ezertarako azaldu gabe.

3. Ez da zilegi izanen eguneroko berri saiorik edo gaurkotasun politikoko programarik patronizatzea. Programa horiek izan ditzaketen zatiak ere ez da zilegi izanen patronizatzea, kirol eta eguraldi berriei buruzkoak izan ezik.

4. Telebistako patronizadorea identifikatzeko denbora tarteak, artikuluko honetako 1 a) idatz-

zatiak aipatu dituenak, ez dira kontatuko 9. artikuluan aipatu diren publizitate denbora gehienekoa kalkulatzeko.

### **III. KAPITULUA** **Adin txikikoen babesa**

**12. artikulua.** Adin txikikoak publizitate eta telesalmentatik babestu beharra.

1. Telebista bidezko publizitateak ez du irudi edo mezurik edukiko adin txikikoen gorputzari edo moraltasunari kalte egiteko modukorik. Hartarako, honako printzipiook begiratu dira:

a) Ez ditu adin txikikoak haien eskarmentu faltaz edo sinisberatasunaz baliatuz bultzatuko produktu edo zerbitzu bat erostera, eta ez beren guraso edo tutoreei, nahiz hirugarren baten guraso edo tutoreei, kasuko zerbitzu edo produktuak erosaraztera.

b) Inoiz ez da baliatuko hurrek gurasoengan edo irakasleengan izaten duten konfiantza bereziaz, ez eta haurrentzako programen profesional batengan edo fikzio pertsonaje batengan izaten dutenaz ere.

c) Ez da zilegi izanen, behar adinako arrazoirik ez dela, haurrak egoera arriskutsu batean aurkeztea.

d) Jostailuen publizitate eta telesalmentaren kasuan, ez dute ideia okerrik sortuko jostailu horien ezaugarrien edo segurtasunaren gainean eta ez haurrak jostailu horiek beren buruari nahiz besteri kalte egin gabe erabiltzeko behar dituen trebetasunen gainean.

2. Telesalmentak 1. idatz-zatian aipatzen diren baldintzak beteko ditu eta gainera ez ditu adin txikikoak bultzatuko produktu eta ondasunak zuzenean erosi nahiz alokatzera edo zerbitzuak kontratatzena.

**13. artikulua.** Adin txikikoak programazioaren aurrean babestu beharra.

1. Telebista saioetan ez da zilegi izanen inolako agerraldi nahiz mezurik sartzea adin txikikoen gorputzaren, gogoaren edo moralaren garapenari kalte larria egiteko modukorik, ez eta jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, nazionalitatea, iritzia edo inolako ingurabar pertsonal nahiz sozialengatik gorrotoa, mespretxua edo diskriminazioa sustatzeko moduko programarik.

2. Aurreko debekuan sartu gabe adin txikikoen gorputzaren, gogoaren edo moralaren garapenari kalte egiteko modukoak diren programak emititzea gaueko hamarretatik biharamuneko seiak arte bai-

zik ez da zilegi izanen, eta igarvide optikoak eta akustikoak erabiliz emanen da aditzera.

Programa horiek kodifikatu gabe emititzen direnean, bistazko sinbolo baten bidez identifikatuko dira irauten duten guztian.

Xedapen hori programazio horren publizitate, telesalmenta eta promoziorako emisioei ere aplikatuko zaie.

3. Telebista programa bakoitzaren hasieran eta publizitate eta telesalmentako iragarkien ete-naldi bakoitzaren ondotik ber-hastean ere, igarvide optiko nahiz akustikoa erabiliz adieraziko zaie ikusleei ondoko programa adin txikikoentzat ego-kia den ala ez.

Filmen kasuan, kalifikazio hori zine aretoetarako nahiz bideoaren merkaturako filmok izan duten bera izanen da, beren berariazko araudiaren arabera. Hori ez da eragozpen izanen telebista operadoreek kalifikazio hori osatzeko xeheroagoko indikazioekin adin txikikoen guraso edo tutoreek jakineanago egon daitezen. Gainerako programe-tan, operadoreei dagokie, bakarka edo elkar har-turik, beren emisioak kalifikatzea.

#### IV. KAPITULUA

##### **Ikusleek informazioa hartzeko eskubidea**

##### **14. artikulua.** Informazioa hartzeko eskubidea.

1. Uztailaren 19ko 26/1984 legeko 2.1.d) artiku-luak agintzen duenarekin bat (Kontsumitzaile eta Erabiltzaileak Defendatzeko Lege Orokorra), teleikusleek eskubidea dute, erabiltzaile diren par-tez, behar bezain lehenagotik jakiteko zer telebis-ta programazio egonen den, filmak eta ikuskizu-nen transmisioa ere barne direla.

2. Aurreko lerroaldean aipatu den informazio-rako eskubide hori betearazteko, telebista opera-doreek programazioa emititu baino gutxienez hamaika egun lehenago jendaurreratu beharko dute beren eguneroko programazioa.

3. Ez da zilegi izanen iragarritako programa-zioan aldaketak egitea ezpada telebista operado-rearen nahiaz kanpoko gertaerengatik, programa-zioa jendaurreratzean ezin igarri zitzaienengatik.

#### V. KAPITULUA

##### **Zehapenen araubideaz**

**15. artikulua.** Subjektu pasiboak, kontrol eta zehapenerako eskumenak eta zehatzeko proze-dura.

1. Kapitulu honetan ezartzen den zehapen araubidea foru lege honetako 2. artikuluan aipatu

zerbitzuak ematen dituzten operadore publiko nahiz pribatuei aplikatuko zaie.

2. Nafarroako Gobernuari dagokio kontrola eta ikuskapena egiteko eskumena, foru lege honetan agintzen dena bete dadin segurtatzeko. Hala tokatzen bada, berak tramitatuko ditu kasuko zehapen prozedurak eta tokatzen diren zehape-nak ezarriko, foru lege honetako 2. artikuluan aipatu zerbitzuei dagokienez.

3. Zerbitzu horiek ematean egindako arau-haustekak zehatzeko eskumena Nafarroako Gobernuari dagokio arau-haustekak oso larriak badira eta Telekomunikazio gaietan eskudun den kontseilariari, arau-haustekak larriak edo arinak izan badira.

4. Zehatzeko prozedura hasi baino lehen, zile-gi izanen da, gertaerak argitzeko, aurretiazko informazio aldi bat ireki dadila agintzea, kasu kon-kretuaren zer nolakoak ikertu eta zehapen proze-dura hasi behar den ez den erabakitzeke. Eginbi-de horiek, telekomunikazio gaietako begiratze, kontrol eta ikuskatze eskumena duten organoek eginen dituzte, edo prozedura hasi edo ebazteko eskumena duen organoak izendatzen duen per-tsonak edo administrazio organoak.

Zilegi izanen da aurretiazko informazio hori erreserbatua izatea eta ez da hilabete batetik goiti luzatuko, non eta espreski erabakitzen ez den beste epe jakin baterako edo batzuetarako luza-tzea.

5. Prozedura betiere ofizioz hasiko du Teleko-munikazio gaietan eskumena duen kontseilariak, ofizioz nahiz salakuntzagatik izandako egintzen bidez.

Zehapen espedienteak hasten duen ebazpenak egintzetarako instruktorea izendatuko du eta ustezko arau-hausleari jakinaraziko zaio eta, sala-tzailerik izan bada, hari ere bai.

6. Instruktoarak kargu plegu bat modutu eta ustezko arau-hausleari jakinaraziko zaio. Hark hamabost egun balioduneko epea izanen du bere eskubideen alde bidezko iruditzen zaizkion alega-zioak egiteko eta datuak, informazioak edo doku-mentuak aurkeztu eta kasurako iruditzen zaion frogak proposatzeko.

Karguen pleguan beti honako jakingaiak eza-rriko dira:

a) Ustezko arau-hausleen identifikazioa.

b) Gertaera egiaztatutak, arau-haustekak tipifi-katzeko eta zehapenak mailakatzeko ardurako direnak azpimarraturik.

c) Ustezko arau-haustea, hautsitako araua edo arauak zein diren zehazturik.

d) Zehapenik tokatzen bada, zein, zenbatekoa eta zein mailakoa den.

e) Zein organok duen prozedura ebazteko eskumena eta zein arauk ematen dion eskumen hori.

7. Espedientatuak bere borondatez aitortzen badu erruduna dela, instruktoreak goratu egingen dio espedientea ebazteko eskudun den organoari, ezertan galarazi gabe tramititzen segitzea, fraude zantzu arrazoizkorik badaude edo beste pertsona edo entitate errudunen bat isilpean geratu diren susmoa, edo prozedura hasteak sortu duen kontua ororen interesekoa bada.

8. Behar adina froga egingen dira ofizioz edo ustezko arau-hausleak eskatuta onartuko gertatutakoak eta erantzunbeharrak finkatzeko. Gertaerakin duten loturagatik azken ebazpena ustezko arau-hauslearen alde aldatu ezin duten frogak soilik ukatu ahalko dira.

Froga teknikoek, eta interesatuek proposatzen dituzten perito txosten kontraesale nahiz ebaztaileek eten egingen dute prozedura ebazteko epearen kontaketa, egin artean eta emaitzak espedienteari erantsi artean.

9. Alegazioak aurkezteko epea iragan, frogarik egin behar bada frogak egin, eta beharrezko irizten zaien eginbideak egin ondoren ere instruktoreak, karguen plegua jakinarazpenean zen bezala mantentzen badu, organo eskudunari pasatuko dio espedientea, eta horrek emanen kasurako ebazpena edo, hala tokatzen bada, instruktoreari aginduko egin ditzala beharrezko iruditzen zaizkion eginbide osagarriak.

Egindako alegazio eta frogen ondorioz gertatzen berririk edo bestelakorik azaltzen bada, edo karguen pleguan aipatzen dena baino larriagoko kalifikazioa sortzen, instruktoreak kargu plegu berria egingen du bide den zehapenarekin eta bai jakinaraziko ere interesatuari, hark hamabost egun balioduneko epean bidezko iruditzen zaion guztia alega dezan.

Aurreko lerroaldean agindu denetik kanpo uzten dira gertaera berriak edo arau-haustearen nahiz zehapenaren kalifikazio berriak alegazioen edo espedientearen interesatuak hala eskatuta egindako frogen ondoriozkoak diren kasuak, ezarri beharreko zehapena hasiera batean proposatutakoa baino larriago ez denean.

10. Organo eskudunak ebazpena emanen du, arrazoiak aipatuz, eta espedientearen sortu kontu guztiak ebaztuko.

Ez da zilegi izaneren prozeduran barna egiaztatu direnak beste gertaerarik onartzea ebazpenean, nahiz eta beste balorazio juridiko bat ematen zaien.

Zehatzeko prozedurari akabera emateko ebazpenak, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 89.3 artikuluan aipatzen diren elementuak ez ezik, egindako frogen balorazioa ere edukiko du, hala korik izan bada, bereziki erabakiaren oinarri izan diren frogena; finkatuko du gertaerak zein izan diren, hala tokatzen bada arau-hauslea(k) nor izan d(ir)en, zer arau-hauste egin den eta zer zehapen ezartzen zai(zki)on.

Aipatuko ere du arau-hausleari aldatutako egoera lehengoratzeko agindu behar zaion ala ez.

Ebazpena administrazio bidea bukatzen duenean betearaziko da. Ebazpenean, hala tokatzen bada, behar diren aurreneurriak hartuko dira betearazi artean ebazpenaren efikazia segurtatzeko.

Zehapena luzenez hilabeteko epean ordainduko da, administrazio bidean irmotu eta bihamunetik kontaktatzen hasita.

11. Zehatzeko ebazpena eman eta jakinarazteko luzeneko epea sei hilabetekoa da espediente hasi zuen ebazpena hartu zen egunetik kontatuta.

Zilegi izaneren da epe hori luzatzea, gehienez beste sei hilabete, hartarako espediente hasi zuen organoak arrazoiak gaineko ebazpena emanik.

12. Agintea aitortu zaien funtzionarioek emandako ikuskapen aktak dokumentu publikoak izanen dira eta hortaz bertan jasotzen diren gertaeren gainean berezko egia eta frogaindarrak aitortuko zaie, besterik frogatzen ez den artean.

13. Kontrol eta ikuskapenerako eskudun diren organoek zilegi izaneren dute operadore publiko edo pribatuei beren eginkizunerako behar dituzten datuak eskatzea.

Hartarako, soinu-zuko irrati zabalpen eta telebistako operadore guztiak lehen emisiotik sei hilabetean eduki beharko dituzte artxibaturik emititu diren programa guztiak, bai eta publizitate eta telesalmenta ere, eta haien gaineko datuak erregrastratu.

14. Honako preskripzio arauok aplikatuko dira:



a) Foru lege honetan arautzen diren arau-hausteeek honela preskribituko dute: oso larriek hiru urteren buruan; larriek bi urteren buruan, eta arinek urtebeteren buruan.

Arau-hausteen preskripzio epea haustea egin den egunetik hasiko da kontatzen. Interesatua jakinean dela zehapen prozedura hasteak eten eginen du preskripzio epea. Berriz hasiko da kontatzen zehapen espedientea hilabetetik gora geldirik egoten bada ustezko arau-hausleari ezin egozteko moduko arrazoiengatik.

Arau-hauste jarraitua izan bada, araua haustez bukatzen denean hasiko da kontatzen preskripzio epea.

b) Huts oso larrien zehapenek hiru urteren buruan preskribituko dute, huts larrienek bi urteren buruan eta arinenek urtebeteren buruan. Zehapenen preskripzio epea, zehapena ezartzen duen ebazpena irmotu eta biharamunetik hasiko da kontatzen. Interesatua jakinean dela betearazte prozedura hasteak preskripzioa etenen du, eta berriz hasiko da prozedura hori hilabetetik gora geldirik egoten bada arau-hausleari ezin egozteko moduko arrazoiengatik.

#### 16. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

1. Foru lege honetan arautzen den zehapen ahalmena erabiltzeko, Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko IX. tituluak ezartzen dituen printzipioak hartuko dira aintzat.

#### 2. Honakoak dira arau-hauste arinak:

a) Foru lege honen ondoriozko edozein obligazio eta eginbide ez betetzea, larritzat edo oso larritzat kalifikatzen ez direnean.

b) Foru lege honen irispideko zerbitzuen eraukipenak gobernatzeko arauak eraukipendunei ezartzen dizkieten baldintzak ez betetzea, ez betetze horrek eraukipenen funtsezko baldintzei erasaten ez badie.

#### 3. Honakoak dira arau-hauste larriak:

a) Foru lege honetako II eta IV. kapituluetan ezarritakoa ez betetzea.

b) 3. artikuluan jasotako printzipioak urratzea, salbu eta artikulua horretako b) idatz-zatian ezarritako printzipioa urratzea.

c) Organo eskudunak eskatutako informazioa ukatzea eta ikuskapen lana tratatzea.

d) Foru lege honen irispideko zerbitzuen eraukipenak gobernatzeko arauak eraukipendunei

ezartzen dizkieten baldintzak ez betetzea, ez betetze horrek eraukipenen funtsezko baldintzei erasaten dienean.

#### 4. Honakoak dira arau-hauste oso larriak:

a) Foru lege honetako 3. artikuluko b) lerroaldean jasotako printzipioak urratzea.

b) Foru lege honetako III. kapituluaren agindutakoa ez betetzea.

c) Foru lege honen aplikazio eremuko jarduerak egin edo zerbitzuak ematea hartarako behar den titulu gaitasun emailea izan gabe.

d) Orobat, arau-hauste oso larritzat hartuko da urtebeteko epean bi edo gehiago arau-hauste larri egitea, ebazpen irmoen bidez horrela izan dela finkatzen denean.

#### 5. Arau-hausteak honela zehatuko dira:

a) Arinak 100.000tik 5.000.000 pezetara bitarteko isunarekin (601,1-30.050,60 euro). Organo eskudunak zilegi izanen du, halaber, gehienez astebetean emisioak edo programazioaren parte bat eteteko erabakitzea.

b) Larriak 5.000.001etik 15.000.000 pezetara bitarteko isunarekin (30.050,61-90.151,81 euro). Zehapena ezartzeko eskudun den organoak zilegi izanen du, halaber, gehienez astebetean emisioak edo programazioaren parte bat eteteko erabakitzea.

c) Oso larriak 15.000.001etik 50.000.000 pezetara bitarteko isunarekin (90.151,82-300.506,05 euro).

Arau-hauste oso larrietan, inguruabarrak zein izan diren, zilegi izanen da soinu-zuko irrati zabalpen eta telebistako zerbitzua emateko titulu gaitasun-emailearen balioa etetea, eta berriroko arau-haustea izanez gero titulua baliogabetzea ere bai, inolako kalteordainik hartzeko eskubiderik gabe.

Beti ere, ezarri behar den zehapenaren kopurua esandako muga horien artean mailakatzeko, honako faktoreak hartuko dira aintzat, Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 131.3 artikulua agintzen duenez gain:

– Arau-hausteak gizartean zer oihartzun izan duen.

– Arau-hausleak zer probetxu atera duen zehatzen den gertaeratik.

– Ez betetzea zeinen larria izan den.

**VI. KAPITULUA****Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak****17. artikulua.** Izaera eta helburuak.

1. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak kontsulta eta aholku eginkizuna du Nafarroako Foru Komunitatean. Erakunde publiko eta instituzionala da eta beregaingo agintea, nortasun juridiko propioa eta bai eremu publikoan nola pribatuan obratzeko gaitasun osoa dituelarik, Administrazio publikoekiko menpekotasunik gabe dihardu bere eginkizunetan. Kontseilu honek, organikoki eta funtzionalki beregaina baita, foru lege honetan eta bera garatzeko xedapenetan agintzen dena hartzen du araubide.

2. Kontseilu honek, Foru Komunitateko eskumenen barrenean, kontu egiten du begira daitezzen Espainiako Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoak ikus-entzunezko komunikabideen alorrerako aitortzen dituzten eskubide eta askatasunak, eta, bereziki, bermatzen du programazioa eta publizitatea, eta eraukipenen baldintzak gobernatzeko dituzten arauak bete daitezela, eta bai Europako araudiak eta gai honen gaineko itun nazioartekoak begiratu eta betearaztea. Kontseiluak kontu egiten du, halaber, Nafarroako ikus-entzunezkoen sektorean behar den politika, erlijio, gizarte, kultur eta hizkuntza aniztasuna egon dadin, eta informazioetan behar bezalako inpartzialitatea eta zintzotasuna.

**18. artikulua.** Ekintza eremua eta egoitza.

1. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak foru lege honen aplikazio eremuan jarduten du bere eginkizunetan.

2. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak Iruñean dauka egoitza.

**19. artikulua.** Irizpenak nolakoak diren eta nork duen irizpena eskatzeko eskumena.

1. Kontseiluari kontsulta egitea nahitaezkoa izanen da foru lege honetan edo beste batean horrela agintzen bada; gainerako kasuetan, berriz, aukerakoa.

2. Kontseiluaren irizpenak ez dira lotzaileak izanen, non eta kasuko foru legeak besterik agintzen ez duen.

3. Nafarroako Gobernuako lehendakariari nahiz Nafarroako Parlamentuko lehendakariari orobat dagokie Kontseiluari irizpena eskatzea.

Nafarroako Gobernuako kontseilariak ere zilegi izanen dute zuzenean Nafarroako Ikus-entzunez-

koen Kontseiluari nahitaezko txostena eskatzea beren eskumenpeko gaietan.

**20. artikulua.** Kontseiluaren osaera.

1. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak zazpi kide izanen ditu, haietako bost Nafarroako Parlamentuak hautatuak eta beste biak Nafarroako Gobernuak proposatu eta Nafarroako Gobernuako lehendakariak izendatuak.

2. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kideak ikus-entzunezkoen arloan eta araudian, bai autonomikoetan nola Estatuakoetan edo Europakoetan, prestijio aitortua duten pertsonen artean hautatuko dira, betiere beregain jokatzeko berme osoa ematen badute.

3. Kontseilukideek, izendatu eta hurrengo hogeita hamar egun naturaletan jabetuko dira karguaz, zin edo promes eginaz noiznahi Nafarroako Foru Eraentza begiratu, Konstituzioari eta legeei men egin eta karguko eginbideak zintzo beteko dituztela.

**21. artikulua.** Kargualdiaren iraupena.

1. Kontseiluburuaren kargualdia betiere sei urtekoa izanen da. Beste kideen kargualdia ere sei urtekoa izanen da baina bi urtetik kide horien hirutik bat berrituko da.

2. Kide berri horiek, lehengo kideak hautatu edo proposatu zituen instituzio berak hautatu edo proposatu beharko ditu. Kide guztiek izanen dute zilegi kargualdia berritzea, betiere baldin aurreko artikuluko 1. idatz-zatiak agindu duenaren arabera hautatzen badituzte eta hango 2. idatz-zatian ezarritako baldintzek bere hartan irauten badute.

3. Kargualdia bukatu baino sei edo gehiago hilabete lehenago kargua husten bada, 20. artikuluko 1. idatz-zatiaren arabera izendatuko da kide berria, eta haren kargualdia, ordeztutako kidearena bukatuko zatekeen egunean bukatuko da, Kontseiluburu eta Idazkari karguetarako agintzen dena ezertan galarazi gabe.

**22. artikulua.** Kontseilukideen bateraezinak.

Indarra duen beste edozein arauk aginduta izan ditzaketen bateraezinez gain, Nafarroako Ikus-entzunezkoen honakoekin ere ezin baterako da Kontseilukidea izatea:

a) Nafarroako Gobernuako kidea edo goi karguduna.

b) Europako Batasunean, Estatuan, Komunitate Autonomoetan eta Udal-kontzejuetan kargudun hautetsia izatea.

c) Alderdi politiko, sindikato edo enpresario erakunde bateko zuzendaritza kargua.

d) Fiskal edo Epaile karreraren jardunean egoitea.

e) Zuzen nahiz zeharbidez edonolako komunikabideetan interesa duen enpresa batean edozein zuzendaritza kargu izatea eta bai publikitate enpresa batean edo ikus-entzunezko edukiak produzitzeko batean.

### **23. artikulua.** Kontseiluko kidesuna uztea.

1. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kidesuna ezin kenduzkoa da, eta honako arrazoietatik batengatik baizik ezin da galdu:

a) Kargualdia bukatzea.

b) Kideak berak uztea

c) Hiltzea

d) Karguan aritzeko ezintasun iraunkorra

e) Izendatu ondoan bateraezintasuna edo kargu publikoetan aritzeko debekua sortzea.

f) Fraudezko delitu batengatik epai irmo baten bidez kondena hartzea.

g) Eginkizunen ez betetze larria.

2. Nafarroako Gobernuak lehendakariaren Foru Dekretu batek sortuko du kargu uztea. Aurreko legeraldetako e) eta g) letretan aipatu kasuetan, interesatuari entzutea ematen dion espedientea, Kontseiluaren txostena eta kontseiluburuaren proposamena beharko dira.

a) eta b) letretako kasuetan, kontseilukideek beren eginkizunetan segituko dute beste kide bat izendatu eta jabetza hartu arte.

### **24. artikulua.** Gobernu organoak.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren gobernu eta erabaki organoa kontseiluaren osoko bilkura da, kontseiluburuak eta kontseilukideek osatua. Kontseilukide batek kontseiluaren idazkaritza hartuko du.

### **25. artikulua.** Kontseiluburuak.

1. Kontseiluburuak kideen artean hautatuko da, gehiengo absolutuz eta isilpeko bozketan.

2. Inork ez badu gehiengo absoluturik iristen, bigarren bozkaldi bat egingen da eta boto gehien lortzen dituen hautatuko. Boto berdinketa izaten bada, berriz bozkatuko da eta berriz berdinduz gero, zaharrena hautatuko.

3. Kontseiluko buruak kargua utzi edo lekuturik nahiz eririk egonez gero, karguan luzeenik egon-

dako kideak edo bestela zaharrenak egingen dituen ordezkoak beste kontseiluburu bat hautatu edo hura ordeztu behar diren arrazoia itzali arte.

### **26. artikulua.** Kontseiluburuaren eginkizunak.

Kontseilukide den partez dagozkionez gain, kontseiluburuak honako eginkizunak ere izan behar ditu:

a) Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren ordezkaritza izatea.

b) Kontseiluaren bilkurak deitu eta hots ematea, bilkuren buru izatea.

c) Kontseilukideen artean gaiak banatzea txostena egiteko.

d) Kontseiluaz kanpoko adituak izendatu txostenak egiteko, hala behar dela juzgatzen den kasuetan.

e) Kontseiluaren gastu espedientei baimena ematea, Idazkaritzak tramitatu baino lehen.

### **27. artikulua.** Idazkaria.

1. Kontseiluko Idazkaria kontseilukideen artean hautatuko da, kontseiluburuak hautatzeko prozedura berarekin. Berdinketak, ordea, kide gazteenaren alde ebatziko dira.

2. Idazkariak kargua utzi edo lekuturik nahiz eririk badago, kontseilukide gazteak egingen dituen ordezkoak beste idazkari bat hautatu edo hura ordeztu behar diren arrazoia itzali arte.

### **28. artikulua.** Idazkariaren eginkizunak.

Kontseilukide den partez dituen eginkizunak gain idazkariak beste eginkizun hauek ere izan behar ditu:

a) Kontseiluaren administrazio burutza eta langile burutza, halakorik badago.

b) Kontseiluaren bilkuretarako behar den dokumentazioa aztertu eta prestatzea.

c) Kontseiluaren bilkuren akta egitea.

d) Kontseiluko zertifikazio eta jakinarazpen organoa izatea.

### **29. artikulua.** Kargu-etenak.

Nafarroako Gobernuak lehendakariak zilegi izan behar du, Kontseiluak eskatuta eta hari entzutea emanik, kontseilukide baten kargua etetea, 23. artikuluko e) eta g) letretan aipatu diren kargu-uzte arrazoiaren gainean ebazpena emateko behar den denboran eta kontseilukidea auziperatzen dutenean ere bai.

**30. artikulua.** Eginbideak

1. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kideak beharturik daude eskuarki parte hartzera irizpen beharrea dauden gaiak eztabaidatzeko bileretan, eta oro har dei egin zaien beste bilere-tan, karguari dagozkion eta enkargatu zazkien azterlanak, txostenak eta lanak egitera eta kontseiluko ekintza eta eztabaiden sekretua edukitze-ra.

2. Kontseilukideek adierazpen, zabalkunde eta informazio askatasunaren printzipioak edukiko dituzte gogoan beti irizpenak eta txostenak modu-tzerakoan, eta printzipio horiek bateratuko anizta-suna, neutraltasuna, informazio zintotasuna eta ikus-entzunezkoen sektoreko konpetentzia librearen printzipioekin. Begiratuko dute, orobat, opera-doreek beren jardunean foru lege honek agintzen duena eta ikus-entzunezko komunikazioa eta publizitatea gobernatzen duen araudia aintzat har ditzaten.

**31. artikulua.** Diru ordainak.

1. Kontseilukideek eskubidea izanen dute erre-gelamenduz ezartzen diren dietak eta ordainak jasotzeko kontseiluaren lan bileretan parte hartze-agatik.

2. Horrez gain, kontseilukide guztiek eskubi-dea izanen dute erregelamenduz ezartzen den diru ordaina jasotzeko irizpenetarako txostenak egiteagatik.

3. Aurreko bi zenbakietan ezarritako diru ordai-nak lanetan parte hartzen duten adituek ere jaso-ko dituzte, 37. artikuluan adierazten den bezala.

**32. artikulua.** Osoko Bilkuraren araubidea.

1. Lehendakariak Kontseiluaren bilkurak deitu eta hotsemateko duen ahalmena ezertan galarazi gabe, gutxienez lau kontseilukidek hala eskatzen dutenean ere deituko da osoko bilkura.

2. Kontseiluaren osoko bilkuraren eraketak balio izanen badu, gutxienez bost kontseilukidek egon behar dute bertan.

3. Kontseiluaren erabaki guztiak Osoko Bilku-ran hartu behar dira eta erabakiak onesteko, ber-tan dauden kontseilukide gehienek botoak behar-ko dira. Kontseiluaren erregelamendu organiko eta funtzionamendukoa onetsi edo aldatzeko, berriz, kontseilukide guztien gehiengo absolutua beharko da, eta bai urteko txostena onesteko ere.

4. Kontseiluburuak hautsiko ditu bozketetako berdinketak kalitateko botoa erabiliz.

5. Gehiengoak hartu duen erabakiarekin ados ez daudenek zilegi izanen dute boto partikular

arrazoitua egitea, idatziz, eta irizpenari erantsiko zaio.

**33. artikulua.** Abstentzioa eta errekusazioa.

1. Kontseilukideek ez dute parte hartuko zuzeneko interes subjektibo nahiz objetiboa baldin badute gai batean, administrazio prozedurari buruz indarra duen araudiarekin bat.

2. Parte interesatuak zilegi izanen du kontsei-lukideak errekusatzea, administrazio prozedurari buruz indarra duten legeekin bat.

**34. artikulua.** Epea.

Oro har, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kon-tseiluak hogeita hamar egun naturaleko epean eman beharko ditu eskatu zaizkion txostenak.

Txostena eskatu dion organoak frogatzen badu espedientea laster-beharra dela, zilegi izanen da epe hori hamabost egun naturaletara gutxitzea. Salbuespenez, kontseiluak zilegi izanen du epe orokor hori beste hogeita hamar egunetan luzatzea.

**35. artikulua.** Dokumentazioa.

a) Kontsulta eskaerarekin batera, plazaratzen den kontuari dagokion dokumentazio guztia aur-keztu beharko da.

Kontseiluak juzgatzen badu espedientea osatu gabe dagoela, zilegi izanen du kontseiluburuaren bitartez eskatzea espedientea osa dadila behar den dokumentazio osagarriarekin. Horretara, eten egingen da, behin baizik ez, aurreko artikuluan iriz-pena emateko ezarri den epea.

Kontseiluak eskubidea izanen du ikus-entzu-nezko komunikazioan diharduten operadoreen-gandik beren jardunerako eskatu zaien dokumen-tazioa jasotzeko.

**36. artikulua.** Interesatuei entzutea ematea.

Kontseiluak zilegi izanen du entzutea ematea kotsultapean jarri zaizkion gaien gainean.

Kontseilukideak erabakiko du entzunaldia, interesatuek eskatuta nahiz ofizioz. Entzunaldi hori beti egingen da administrazio publiko batek kontsultan zuzeneko interesa izan eta hala adie-razten badu.

**37. artikulua.** Adituen kolaborazioa.

Kontseiluak zilegi izanen du kotsultapean jarri zaizkion gaien gainean gaitasun tekniko aitortua duten erakunde nahiz pertsonen kolaborazioa eskatzea, beren txostena eman dezaten. Horreta-ra, Kontseiluaren azken buruzko irizpenean aipatu egingen da txosten eskaera horrek zehazki zer

inguruabar izan dituen eta bai txostena erantsiko ere.

### **38. artikulua.** Memoria.

Kontseiluak urtero memoria bat bidaliko die Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari, zeinean azalduko baita aurreko lanaldian zer jarduera izan duen eta bai zernahi sujerentzia eginen ere, jarduera juridiko administratiboaren hobegarri iruditzen zaizkionak.

### **39. artikulua.** Eginkizunak.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak honako eginkizunak izanen ditu bere ekintza eremuan:

a) Ikus-entzunezkoen sektoreari eta hark izan ditzakeen aldaketei buruzko proiektu eta xedapen orokorren gainean aurretiaz eta nahitaez txostena ematea, eta bere borondatez nahiz Nafarroako Gobernuak edo Parlamentuak hala eskatuta txostenak eta irizpenak modutzea.

b) Soinuzko irrati zabalpen eta telebistako zerbitzuen eraukipena adjudikatzeke lehiaketa bakoitzean, deialdia egin baino lehen, Gobernuak modutu duen baldintza pleguari buruz nahitaezko txostena egitea.

c) Irrati zabalpen eta telebistako emisorak kudeatzeko eraukipenak emateko lehiaketetan, nahitaezko txostena egitea lizitatzailen akziodunosaeraren gainean, sektore horretan aniztasuna eta konpetentzia librea segurtatzeko, hedabideak esku gutxitan kontzentratzea eta gailentasunezko abusuak eragozteko. Erauikipenak berritzeko eskaeren gainean ere emanen du txostena, erauikipenen enpresa titularren kapital soziala aldatzeko espediente Nafarroako Gobernuak baimendu behar dituenen gainean eta erauikipenak eskualdatzeko espedienteen gainean.

d) Operadorei aholkua eta informazioa ematea beren eskumenen eremuan legeak bete daitezela segurtatzeko, eta ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuen erabiltzaileen egiten dituzten kejen berri ematea.

e) Begiratzea ikus-entzunezko sektorea gobernatzen duen araudiak agintzen duena bete dadin eta araudiaren oinarri diren printzipioak errespetatu daitezkeen: bereziki, politika, gizarte, kultura eta pentsamenduaren alorreko aniztasuna segurtatzea eta Nafarroan ikus-entzunezko sistema osoan hizkuntza eta kultura aniztasuna zaintzea.

f) Publizitatearen gaineko legeak bete daitezkeen begiratzea publizitate saioen modalitate eta edukiei dagokien guztian, patrozinio eta telesalmenta barne direla.

g) Bere eskumenen eremuan Europako Bataunaren arauak bete daitezkeen begiratzea, bereziki mugarik gabeko telebistari dagokion arloan, eta bai nazioarteko itunek ikus-entzunezko hedabideen gainean agintzen dutena ere.

h) Ikus-entzunezko hedabide publiko nahiz pribatuei esleitu zaizkien zerbitzu publiko eginkizunak bete daitezkeen begiratzea.

i) Administrazio eskudunari jakinaraztea, aurretik Kontseiluak txostena eginik, zer arauhauste administratibo nahiz penal aurreikusten diren ikus-entzunezkoen gaitan.

j) Uztailaren 27ko 8/1995 Legeak agintzen duena bete eta begira dadila segurtatzea (Haur eta Adoleszenteak Babestu eta Laguntzeko Legea), zeinak abenduaren 30eko 37/1991 Legea aldatu zuen, Babes Gabeko Adin Txikikoak Babesteko Neurriari eta Adopzioari buruzkoa.

k) Foru lege honek aitortzen dituen eskurantzien barrenean, behar diren neurriak hartzea publizitatean edo programazioan giza duintasunaren eta berdintasunaren kontrako mezu edo edukia sartu eta zabaltzearen ondorioak berdintzeko; bereziki mezu edo eduki horiek haur edo gazte jendearen entzun orduetan emititu badira.

l) Kontseiluaren erregelamendu organiko eta funtzionamendukoa onetsi eta hala tokatzen bada, aldatzea.

m) Iragarkigileei eta ikus-entzunezko enpresei eskatzea, bere borondatez nahiz interesatuek eskatuta, bidegabeko publizitatea kentzeko edo aldatzeko.

n) Herritar Elkarten eta teleikusle zein erabiltzaileen kejak eta eskaerak jasotzea eta sektore horiekin harreman etengabea eta erraza izatea.

ñ) Ikus-entzunezkoen sektorean autorregulazio arauak har daitezkeen sustatzea.

o) Legeak esleitzen dizkion beste guztiak.

### **40. artikulua.** Araubide juridikoa.

1. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari kontratazio, erantzukizun eta barne nahiz administrazio erregimenaren beste gaitan aplikatzeko zaien araubidearen menpe egonen da.

2. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren osoko bilkurari dagokio Kontseiluaren erregelamendu organiko eta funtzionamendukoaren proposamena onestea eta Nafarroako Gobernuari erregelamendua onestea foru lege honetako printzipioen arabera.

**41. artikulua.** Araubide ekonomiko finantzarioa.

1. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari aplikatzeko zaion araubide ekonomiko finantzario beraren menpe egonen da.

2. Kontseiluak bere urteko aurrekontuaren aurreproiektua itxuratuko du, programa beregain gisa sar dadin Nafarroako aurrekontu orokorren foru legearen proiektuan.

**42. artikulua.** Langileak.

Gobernuak, Kontseiluak hala eskatuta, onetsiko ditu eginkizun administratiboak kontseiluarentzat egiteko lanpostuak, aurrez frogatzen bada beharrezkoak direla.

Horretara, Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren zerbitzuko langileak Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuko langileei aplikatzeko zaizkien lege berberen menpe egonen dira.

#### Xedapen gehigarriak

**Lehenbizikoa.** Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du irispide autonomikoko telebista digital lurrekoaren zerbitzuaren ustiapena diruz laguntzea kasuko lehiaketa publikoan aipatu zerbitzua eraukitzen zaionari, hasiera batez hamar urteko aldi baterako, beste hainbesterako berritzeko aukerarekin.

**Bigarrena.** Nafarroako Gobernuak Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak jardun ahal izateko behar diren kredituak gertutuko ditu, Kontseiluak Nafarroako aurrekontu orokorren gastu egoeran bere-bere programa ez duen artean.

**Hirugarrena.** Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluak langileak eta baliabide materialak beretzen dituen arte, Nafarroako Gobernuak Kontseiluak egoki jarduteko behar diren baliabideak esleituko dizkio.

#### Xedapen iragankorra

1. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua hurrengo idatz-zatian xedatu bezala egingen ditu lehenbiziko bi berrialdi partzialak.

2. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kideak lehenbizikoz izendatu eta bi urtera, Kontseiluan bertan zozketa egin eta haren arabera izendatuko dira kargua utzi eta berritu behar diren kideak. Beste bi urte iraganik orobat egingen da lehenbizikoan berritu ez diren kideekin. Geroztik, foru lege honetako 21. artikulua agintzen duena hartuko da aintzat.

3. Xedapen iragankor honetan aipatzen diren berrialdi partzialak ez zaizkio kontseiluburuari aplikatuko.

#### Xedapen indargabetzailea

Indargabetzen dira foru lege honi kontra egiten dioten maila bereko nahiz apalagoko xedapen guztiak.

#### Azken xedapenak

**Lehenbizikoa.** Esku ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu, bete eta aplikatzeko behar diren xedapenak emateko.

**Bigarrena.** Foru Dekretu bidez, Operadore Erregistro Berezia (erakunde publikoa) sortuko da telekomunikazio gaietan eskudun den Departamentuan.

Erregistro Berezi horretan inskribatuko dira eraukipenak eta eraukipena hartu duten enpresak, hartarako eratze eskritura aurkezturik, eta bai bere administrazio organoen hasiera bateko osarea ere.

Eratze eskritura, eraukipena hartzen duten sozietateen estatutuak edo administrazio organoen osara ezertan aldatzen badira, hala adierazi beharko zaio Erregistro Bereziari.

**Hirugarrena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.



## Nafarroako Foruzaingoan polizia judizialeko unitateak antolatzeke Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2000ko abenduaren 26an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Foruzaingoan polizia judizialeko unitateak antolatzeke Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.-** Nafarroako Foruzaingoan polizia judizialeko unitateak antolatzeke Foru Lege proiektua ohiko prozeduraz bideratzea.

**Bigarrena.-** Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordearen esku uztea.

**Hirugarrena.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2001eko otsailaren 23ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### Nafarroako Foruzaingoan polizia judizialeko unitateak antolatzeke Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 51. artikulua araberak, Nafarroari dagokio Foruzaingoko araubideak antolatzea.

Polizia Judizialaren egitekoa, alegia, epaitegi eta auzitegiei eta Ministerio Fiskalari eman beharreko laguntza delituak ikertzeko eta gaizkileak atzeman eta atxilotzeko, haiek eskaturik edo

berak hala erabakirik, edozein poliziaren funtsezko eginkizuna da.

Horregatik, foru lege honek bultzada ematen dio Polizia Judizialeko berariazko unitateen antolatetari, Nafarroako Foruzaingoko kidegoan, Justizia Administrazioaren esanetara eta hark zaindurik, eta Estatuko legeekin bat datorren arautegi bat ezartzen du eta bertan sartzen diren funtzionarioen araubidearen berezitasunak bildu.

#### 1. artikulua.

1. Aginte Judizialari buruzko Lege Organikoko 443 eta 445. artikuluetan aurreikusirik eginkizunak betetzeko, Nafarroako Gobernuak polizia judizialeko unitateak antolatuko ditu, Foruzaingoko egitura organikoaren barruan.

2. Polizia judizialeko unitate horiek Nafarroako Foruzaingoko Kidegoko kideek osatuko dituzte, behar den prestakuntza espezializatua izan beharko dutenek.

3. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak polizia judizialeko unitateak esleitzen ahalko dizkie epaitegi edo auzitegiei eta Ministerio Fiskalari.

4. Polizia judizialeko unitateburuak eskudun izanen dira agintari judizialen eta Ministerio Fiskalaren eskariak bideratzeko, unitate horretako funtzionarioek edo balibideek parte har dezaten ikerketa batean.

#### 2. artikulua.

1. Polizia judizialeko unitateei atxikiriko Foruzaingoko Kidegoko kideak organigramaren aldetik Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren menpe egonen dira eta eginkizunei dagokien epaileen, auzitegien edo Ministerio Fiskalaren menpe, haiek esleitzen dizkieten eginkizun guztietan.

2. Epaileek, auzitegiek eta Ministerio Fiskalak, polizia judizialeko unitateetako kideei dagokienez, Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko Lege Organikoko 35. artikuluan zehazturiko ahalmenak izanen dituzte.

3. Polizia judizialeko unitateetako kideek eginkizun hori izanen dute bakar-bakarrik eta esleiturik daukaten ikerketatik ezin kendu edo baztertuko dira, Aginte Judizialari buruzko Lege Organikoko 446.2 artikuluan aurreikusirik baldintzetan izan ezik.



4. Polizia judizialeko kideei diziplina espediente bat irekitzen zaienean, espediente horren xede diren egitateak esleiturik daukaten eginkizunari loturik badaude, buru duten epaile, auzitegi edo fiskalaren txostena eskatuko da, bidezkotzat jotzen diren gainerako txostenak deusetan galarazi gabe.

### 3. artikulua.

Polizia judizialeko unitateei atxikiriko Foruzaingoko kideek polizia judizialeko diploma eduki beharko dute. Nafarroako Segurtasun Eskolak luzatuko du diploma hori, epaileekin eta Ministerio Fiskalarekin batera antolatu eta garatuko den espezializazio ikastaroa gainditutakoan.

### 4. artikulua.

Foru Agindu honetan xedaturikoa galarazi gabe, polizia judizialeko unitateetako kideen araubidea Nafarroako Foruzaingorako aurreikusirik dagoen araubide orokor bera izanen da.

#### Azen xedapenak

**Lehena.** Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak emateko.

**Bigarrena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## Foru Lege proiektua, zenbait aldaketa egiten dituen Balio Erantsiaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legean eta Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legean

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2001eko urtarrilaren 8an hartutako erabakiaren bidez, ondoko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura: "Foru Lege proiektua, zenbait aldaketa egiten dituen Balio Erantsiaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legean eta Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legean".

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 155. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona

#### ERABAKIA:

**Lehena.**- Balio Erantsiaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legean eta Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legean zenbait aldaketa egiten dituen Foru Lege proiektuaren biderapena zuzeneko eta irakurketa bakarrekota izanen ote den Osoko Bilkuraren esku jartzea.

**Bigarrena.**- Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatu-

ko dena. Zuzenketak Biltzarreko Mahaiaren aurrean aurkeztu beharko dira.

**Hirugarrena.**- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## Foru Lege proiektua, zenbait aldaketa egiten dituen Balio Erantsiaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legean eta Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legean

Estatuak eta Foru Komunitateak 1990eko uztailaren 31n sinatu zuten Hitzarmen Ekonomikoaren 27. eta 30. artikuluek ezartzen dute Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta Zerga Berezia ordainarazteko Nafarroak ere Estatuaren lurraldean unean-unean indarra duten printzipio oinarriko berak eta mamizko zein formazko arau berak aplikatuko dituela.

Abenduaren 29ko 14/2000 Legeak (Neurri Fiskal, Administratibo eta Sozialei buruzkoa) aldatu ditu Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta Zerga Berezia araubide komunean gobernatzen zituzten legeak.

Foru Lege honetan zenbait xedapen ematen dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araudia seigarren Zuzentarauan agintzen denaren arabera moldatzeko, subjektu pasiboaren jardueraren gai diren operazioak hasi aurretik jasandako Zerga itzultzeko prozedura bereziari dagokionez, Europako Komunitateen Justizi Auzitegiak berriki eman dituen jarraibideekin bat.

Beste alde batetik, 37/1992 Legeko 19.5 artikulua (Balio Erantsiaren gaineko Zerga Araubide Komunean Gobernatzeko Legea) honako operazio hauek definitzen ditu inportazioen eite berekotzat: aduana edo fisko erregimenak bukarazi edo abandonarazi egiten dituzten eta hortaz Hitzarmen Ekonomikoak hala aginduta Estatuaren eskumen eskusibokoak diren operazioak.

Hala ere, abuztuaren 29ko 14/1997 Errege Dekretu-legeak eta geroago apirilaren 21eko 9/1998 Legeak aldatu zuten 37/1992 Legea, haren 19.5 artikuluari bigarren lerroalde bat erantsiz, zeinean inportazioen eite berekotzat jotako operazioetatik kanpo uzten baitziren artikulua horretan aipatzen diren zenbait lehengai helburu dituzten operazioak. Orobat, aldatzen dute 37/1992 Legearen eranskineko seigarren idatz-zatia, operazio horiei dagokien Zerga kitatzeko formula berriak eratuz.

Operazio horiek inportazioen eite berekotzat jotako operazioen kontzeptutik kanpo uztearen ondorioz, bada, Nafarroako Foru Komunitateak beretu du haien gaineko zerga ordainarazteko eskumena, Hitzarmen Ekonomikoaren harmonizazio printzipioen arabera. Beharrezkoa da, beraz, zerga kitatzeko formula berriak eratzea eta kome-ni da -ez dadin distorsiorik izan operadore ekonomikoekiko harremanetan, maiz asko ez baitute egoitzarik izaten zerga aplikatzen deneko lurraldean- formula horiek ahalean erregimen komunean ezarritakoak bezalakoak izatea, eta azken finean antzeko kasuetan Europako Batasuneko beste estatu erkideetan erabiltzen direnen tankerakoak.

Kitatze formula berriok Balio Erantsiaren gaineko Zergaren gaineko 19/1992 Foru Legeari eransten zaizkio, hartarako bigarren lerroalde bat erantsiz 112. artikuluko 1. zenbakiari eta zortzigarren idatz-zati bat Eranskinari.

Zerga Bereziei dagokionez, foru lege honetako 2. zenbakiaren gaia baita, aipagarria da zenbait garraibidieren gaineko Zerga Bereziari egin zaion aldaketa, alde batetik zerga hori moldatzeko Vienan harreman diplomatiko eta kontsularren gainean egindako Kongresoan erabaki zenaren arabera, 2001eko urtarrilaren 1ean matrikula turistikoko erregimena desagertzearen ondorioz, eta bestetik

zerga oinarria 100eko 50ean gutxitzeko familia larri batek erosi duenean gutxienez bost eta gehienez bederatzi tokiko ibilgailua.

Xedapen Gehigarriak ezartzen du urtean 120.000 pezetako laguntza emanen dela, gainera, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legearen baldintzak eta eskakizunak bete eta gasolinazko motordun ibilgailu bat kendu eta gasolinazko motor katalizagailuduna duena erosten denean.

**1. artikulua.** Abenduaren 30eko Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 19/1992 Foru Legearen aldaketa.

2001eko urtarrilaren 1etik aurrera, honako eduki hau izanen dute abenduaren 30eko Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru legeko artikulua hauek:

Bat. 5. artikuluko 2. zenbakia.

"2. Jarduera enpresarial edo profesionaltzat hartzen dira produkzio faktore material nahiz giza-kizkoak (nahiz bietako bakar bat) norberaren kontu antolatzea sortzen dutenak, ondasun edo zerbitzuen produkzio edo banaketan esku hartzea helburu.

Jarduera hauek hartzen dira, bereziki, halakotzat: ateratze lanak, zerbitzuak sortu, merkaturatu eta ematekoak, haien barne direla eskulangintza, nekazaritza, basolanekoak, abeltzaintza, arrantza, eraikuntza, mehatze lanekoak eta lanbide liberal eta artistikoetan aritzea.

Zerga honi dagokionez, jarduera enpresarial edo profesionalak hasitakotzat joko dira ondasun edo zerbitzuak erosten diren unetik, asmoa delarik, elementu objetiboek konfirmatua, horiek jarduera horietan erabiltzea, bai eta aurreko zenbakiko b), c) eta d) letrek aipatzen dituzten kasuetan ere. Ondasun-zerbitzu horiek erosi dituztenek une hartatik aurrera enpresario edo profesionaltzat hartuko dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez.

Bi. 26. artikuluko 3. idatz-zatia.

"3. Zerga honen peko operazioen prezioarekin lotura zuzena duten dirulaguntzak.

Zerga honen peko operazioen prezioarekin lotura zuzena dutela juzgatuko da entregatu den unitate kopuruaren arabera edo emandako zerbitzuen bolumenaren arabera ezarritako dirulaguntzak operazioa egin baino lehen finkatzen direnean."

Hiru. 37. artikuluko 10 idatz-zatia. Bat.2.

"10. Hileta enpresek eta hilerriek ematen dituzten hileta zerbitzuak eta zerbitzu horiekin lotuta zerbitzu-hartzaileei egiten zaizkien ondasun entregak."

Lau. 39. artikulua.

"39. artikulua. Kenketa egiteko subjektuak bete beharreko baldintzak.

1. Foru lege honetako 5. artikulua agintzen duenaren arabera enpresario edo profesionalak izan eta beren jarduera enpresarial nahiz profesionalari dagozkion ondasun entregak egiten edo zerbitzuak ematen erregulariki hasi diren subjektu pasibo guztiek izanen dute kenketarako eskubidea.

Aurreko lerroaldean xedatu denagatik ere, zilegi izanen da beren jarduera enpresarial nahiz profesionalari dagozkion ondasun entregak egiten edo zerbitzuak ematen erregulariki hasi aurretik jasandako edo ordaindutako kuoten kenketa egitea, foru lege honetako 57., 58. eta 59. artikuluek agintzen dutenarekin bat.

2. Aldian behin foru lege honetako 22. artikuluko 1. eta 2. zenbakiek aipatu garraioberri berrien entregak egiten dituzten subjektu pasiboek ere izanen dute kenketarako eskubidea.

3. Foru lege honetako VIII. Tituluaren arautzen diren araubide bereziak aplikatu behar zaizkien sektoreei dagokien kenketa eskubidea erabiltzeko, Titulu hartan bakoitzerako ezartzen diren arauak hartuko dira aintzat.

4. Ez da zilegi izanen inolako moduan ez neurrian kenketa egitea jarduera enpresarial edo profesionaletan erabiltzeko asmorik gabe erosi edo inportatu diren ondasun edo zerbitzuengatik jasan edo ordaindu diren kuotekin.

5. 50.2.2. artikuluko hirugarren lerroaldea.

"2. idatz-zati honetako aurreko lerroaldeetan agindu dena betetzeko, Honako dirulaguntzak ez dira kontuan hartuko, foru lege honetako 26. artikulua arabera Zergaren oinarria osatzen ez badute:

a) apirilaren 7ko 13/1982 Legeak araututako Zentro Bereziak jasotakoak, 43. artikuluko 2. idatz-zatiak ezartzen dituen baldintzak betetzen badituzte.

b) FEOGak finantzatzen dituenak.

c) Arrantza Orientatzeko Institutuak (IFOP) Finantzatzen dituenak.

d) Teknologiaren arloko Ikerketa, garapen eta berrikuntzak egiteko gastuak finantzatzeko eman

direnak. Halakotzat hartuko dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 66. artikuluan definitzen direnak."

Sei. 51. artikuluko 3. zenbakia.

"3. Jarduera enpresarial edo profesionalak hasi behar diren kasuetan eta ordu arteko jarduerarena ez beste sektore bat osatuko duten jarduerak hasi behar diren kasuetan, foru lege honetako 57. artikuluko 2. zenbakiaren arabera dagokion kenketa portzentaje behin-behinekoa aplikatuko da kasuko jarduerari dagozkion ondasun entregak egiten eta zerbitzuak ematen hasi diren urtean.

Foru Lege honetako 57. artikuluko 2. zenbakiak agintzen duenaren arabera kenketa portzentaje behin behinekorik finkatu ez den kasuetan, aurreko lerroaldeak aipatzen duen kenketa portzentaje behin-behinekoa xedapen hartan agintzen den moduan finkatuko da."

Zazpi. 57. artikulua.

"57. artikulua. Jarduera enpresarial edo profesionalei dagozkien ondasun entregak egiten edo zerbitzuak ematen hasi aurretik jasan edo ordaindutako kuoten kenketak.

Ordu arte jarduera enpresarial edo profesionaletan aritu gabeak izan eta elementu objetiboek salatzen dutenez eite hartako jardueretan erabiltzeko asmoz ondasunak edo zerbitzuak erosi edo inportatu dituztelako, enpresario edo profesional egiten direnek zilegi izanen dute jarduera horiei dagozkion ondasun entregak egiten edo zerbitzuak ematen erregulariki hasi aurretik jasandako edo ordaindutako kuoten kenketa egitea, artikulua honetan eta hurrengo 58. eta 59. artikuluetan agintzen denaren arabera.

Aurreko lerroaldean agindu dena aplikatuko ere zaie lehendik enpresario edo profesional izan, eite hartako jardueretan egin ohi zituztelako, eta ordu arte izaten zutena ez beste sektore bateko jarduera enpresarial edo profesional berri batean hasten direnei.

1. Aurreko zenbakiak aipatzen dituen kenketak egiteko, kasuko enpresario edo profesionalak Administrazioari proposatzen dizkion portzentajeak aplikatuko dira, non eta Administrazioak berak beste portzentaje bat ezartzen ez duen, kasuko jarduera enpresarial edo profesionalen ezaugarriak kontuan harturik.

Kenketa horiek behin-behinekotzat hartuko dira eta foru lege honetako 58. eta 59. artikuluetan xedatzen diren erregularizazioen mende egonena dira.

2. Enpresario edo profesionalek zilegi izanen dute artikulua honetan ezarri denaren arabera kengai diren kuotak itzultzeko eskatzea, foru lege honetako 61. artikuluan ezarri denaren arabera.

3. Foru lege honetan ezartzen denaren arabera jarduera komertziala hasten dutenetik bertatik, baliokidetza errekarguaren erregimen bereziaren pean jarri behar diren enpresarioek ez dute zilegi izanen artikulua honetan aipatzen diren kenketak egitea erregimen horretan sartzen diren jardueri dagokienez.

4. Artikulu honetan aipatzen diren kenketak egin dituzten enpresario edo profesionalek ez dute zilegi izanen erregimen sinpletua edo nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzarakoa eskatzea erosteagatik kendutako kuotan ordaindu zituzten ondasun edo zerbitzuak erabiltzen dituzten jardueretarako, harik eta jarduera horietarako ondasun entregak eta zerbitzuak hiru urte natural osoz eman eta egin diren arte.

Aurreko lerroaldean agintzen dena aplikatzeak aipatu erregimen berezi uko egitearen ondorio berak izanen ditu.

5. Artikulu honetan eta foru lege honetako 58. eta 59. artikuluetan agintzen dena betetzeko, enpresario edo profesionala bere jarduera enpresarial edo profesionaletan erregulararki hasi den lehenbiziko urtea hartuko da jarduera horietarako ondasun entregak egin edo zerbitzuak ematearen lehen urteztat, beti ere jarduera horiek uztailearen 1a baino lehenago hasten badira; bestela, hurrengo urtea.

Zortzi. 58. artikulua.

"58. artikulua. Jarduera enpresarial edo profesionalei dagozkien ondasun entregak egiten edo zerbitzuak ematen hasi aurretik jasan edo ordaindutako kuoten kenketak erregularizatzea.

1. Foru lege honetako 57. artikulua aipatzen dituen behin-behineko kenketak erregularizatzeko, jarduera enpresarial edo profesionaletarako ondasun entregak edo zerbitzu emateak egin diren lehenbiziko lau urteen aldiari osotara dago-kion behin betiko portzentajea aplikatuko da.

2. Aurreko zenbakiak aipatzen duen behin betiko portzentajea finkatzeko, foru lege honetako 50. artikulua agintzen duena hartuko da aintzat, hartarako, aurreko zenbakiak aipatzen duen epean egindako operazio guztiak kontatuta eta bai artikulua horretako 2. zenbakiko 22. idatz-zatiak aipatzen dituen dirulaguntzak ere, epe horretan eta aurretik ere jasotakoak.

3. Artikulu honek aipatzen dituen kenketak honela erregularizatuko dira:

1. Jarduera enpresarial edo profesionalari dagozkion ondasun entregak egiten edo zerbitzuak ematen hasi aurretik jasandako edo ordaindutako kuotei aplikatzeko den kenketa portzentajea ezaguturik, finkatuko da zer kenketa tokatuko litzatekeen portzentaje hori aplikatuko balitz.

2. Kenketa horren kopurua foru lege honetako 57. artikulua agintzen duenaren arabera egiten diren behin-behineko kenketen batura osoari kenduko zaio.

3. Horren diferentzia, negatiboa nahiz positiboa izan, hartuko da egin beharreko sarrera edo kenketaren zenbatekotzat.

Bederatzi. 59. artikulua.

"59. artikulua

Inbertsioko ondasunei dagozkien kuotak erregularizatzea kuota horiek jarduera enpresarial edo profesionalei dagozkien ondasun entregak egiten edo zerbitzuak ematen hasi aurretik jasan diren-an.

1. Foru lege honetako 57. artikulua aipatzen dituen behin-behineko kenketak, inbertsioko ondasunak erosi edo inportatzeagatik jasan edo ordaindutako kuotei dagozkienak, behin aurreko artikuluan xedatzen denaren arabera erregularizatu gero, foru lege honetako 53. artikuluan agintzen denaren arabera erregularizatu beharko dira oraindik geratzen den erregularizazio aldiko urteetan.

2. Artikulu honetan aipatzen diren erregularizazioak egiteko, hauxe hartuko da foru lege honetako 55. artikulua 2. idatz-zatian agintzen dena betetzeko egozpena gertatu zen urtean egindako kenketatzat: foru lege honetako 58. artikuluko 1. zenbakiak ezartzen duenaren arabera behin betiko aplikatzeko den portzentajearen ondoriozkoa.

3. Artikulu honek aipatzen dituen inbertsioko ondasunak artikulua honexek aipatzen duen erregularizazio aldia bukatu baino lehen entregatzen direnean, foru lege honetako 56. artikuluko arauak aplikatuko dira, lege honetako 57. eta 58. artikuluek eta artikulua honetako aurreko zenbakiak agintzen dutena ezertan galarazi gabe.

Hamar. 112. artikuluko 1. zenbakiari lerroalde berria eranstea.

"Balio Erantsiaren gaineko Zerga Araubide Komunean Gobernatzeko Legeko 19.5 artikuluko bigarren lerroaldeak zerrendatzen dituen ondasunak 20. artikulua aipatzen dituen arloetatik atera-

tzen badira eta abandonatzen badituzte foru lege honetako honetako 21. artikuluan sartzen diren erregimenak, foru lege honetako Eranskineko zortzigarren idatz-zatiak agindu bezala kitatuko da zerga."

Hamaika. 112 bis artikulua berria eranstea.

"112 bis artikulua. Behin-behineko kitapena.

Zergak kudeatzeko organoek zilegi izanen dute tokatzen den behin-behineko kitapena abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legeko 113. artikulua agintzen duen moduan egitea (Zergei buruzko Foru Lege Orokorra), bai eta hurrengo artikuluan aipatzen diren kasuetan ere."

Hamabi. Bigarren Xedapen Gehigarria erans-tea. Xedapen Gehigarriaren oraingo testua lehen-bizikoa izanen da.

"Bigarrena. Nahitaez betearazteko prozedura administratibo eta judiziala.

Nahitaez betearazteko administrazio eta Epai-tegi prozeduretan, zerga honi dagokionez enpre-sario edo profesionaltzat hartzen diren esleipen hartzaileek zilegi dute honakoak egitea subjektu pasiboaren izenean eta haren kontu eta zergape-ko ondasun entrega eta zerbitzu emateei dagokie-nez:

1. Operazioa dokumentatu eta Zergaren kuota egotzi egiten duen faktura ematea, kasuko aitor-pen-kitapena aurkeztea eta horren ondoriozko zenbatekoa sartzea.

2. Hala tokatzen bada, foru lege honetako 17. artikuluko 2. zenbakian aipatzen diren salbuespe-nei uko egitea.

Erregelamendu bidez finkatuko da zer baldin-tzatan erabiliko den ahalmen hori.

Hamahiru. foru legeko Eranskinari zortzigarren idatz-zati bat eranstea.

"Zortzigarrena. Zerga kitatzea Balio Erantsia-ren gaineko Zerga Araubide Komunean Goberna-tzeko Legeko 19.5 artikuluko bigarren lerroaldeak zerrendatzen dituen kasuetan.

Balio Erantsiaren gaineko Zerga Araubide Komunean Gobernatzeko Legeko 19.5 artikuluko bigarren lerroaldeak zerrendatzen dituen kasue-tan zerga kitatzeko, honako arauak begiratuko dira:

1. Ondasunek foru lege honetako 20. eta 21. artikuluetako arloak edo erregimenak uzten dituz-tenean sortuko da aurrez arlo edo erregimen horietan sartuta egoteagatik salbuespena zuten

operazioei dagokien zerga kitatu beharra, honako arauen arabera:

a) Ondasun horiekin aurretiaz salbuetsitako entrega bat edo gehiago egin balitz, sartu beha-rreko kopurua salbuetsitako azken entregari dago-kiona izanen da.

b) Ondasun horiek Europako Batasunaren barrenean erosi badira eta erosketak salbuetsita badago direlako arlo edo erregimenetan sartu delako, eta ondoren haiekin salbuetsitako entre-garik egin ez bada, sartu beharreko zerga sal-buespenik izan ez balitz operazio hari tokatuko zitzaiona izanen da.

c) Ondasun horiekin operazio salbuetsirik egin balitz aurreko a) eta b) letretan aipatzen direnen ondotik, edo halako operaziorik egin ez balitz, sartu beharreko kopurua kasuan-kasuan letra horietan ezartzen denaren ondoriozkoa izanen da, hari ondorengo operazio salbuetsi horiei tokatuko zitzaiena gehiturik.

d) Ondasun horiekin inportazio salbuetsia egin balitz Aduanetakoa ez beste gordailu erregimen batean sartu delako eta inportazio horren ondo-rengo operazio salbuetsirik egin bada, sartu beha-rreko Zerga ondorengo operazio salbuetsi horiei tokatuko zitzaiena izanen da.

Idatz-zati honetan xedatzen denak ez du gala-raziko Administrazio eskudunean inportazioaren zergagaiari dagokion zerga zatia sartu beharra, hirugarren herrietatik heldu diren ondasunen kasuan.

2. Aipatu arloak edo erregimenak uzteagatik tokatzen diren kuotak kitatu eta sartu beharra daukan pertsona ondasun horiek unean-unean duten jabea izanen da, bera izanen baita subjektu pasiboa eta berak aurkeztu beharko baitu foru lege honetako 112. artikuluko 1. zenbakiak aipa-tzen dituen operazioei dagokien aitorpen-kitape-na.

Kuota horiek sartzeko obligazioa daukanak zilegi izanen du kuota horiekin kenketa egitea, foru lege honek 31. artikuluko 1. zenbakiko 2. idatz-zatiko kasuetarako agintzen duenarekin bat.

Zergaren aplikazio eremuaz kanpoko enpresa-rio edo profesionalek, idatz-zati honetan agintzen denaren arabera zergaren subjektu pasibo gerta-tzen badira, zilegi izanen dute hargatik kitatutako kuotekin kenketa egitea aplikazio eremuaz barne-koen modu eta baldintza berberetan.

3. Agindu honek aipatzen dituen arlo edo gor-dailuen titularrek erantzun behar solidarioa izanen dute tokatzen den zerga zorra pagatzeko, Zortzi-

garren idatz-zati honetako aurreko lerroaldeetan agindu den moduan. Hori ez da eragozpen izanen Zergaren aplikazio eremuaz kanpoko enpresario edo profesionalen ordezkari fiskal gisa joka dezaten."

**2. artikulua.** Abenduaren 30eko Zerga Bereziei buruzko 20/1992 Foru Legearen aldaketa.

2001eko urtarrilaren 1etik aurrera, abenduaren 30eko Zerga Bereziei buruzko 20/1992 Foru Legeko artikuluko hauek honako testu hau izanen dute:

Bat. 42. artikuluko 3. zenbakia.

"3. Lehenbiziko matrikulazio behin betikotik hiru urte iragan baino lehen foru lege honek zergaz salbuesteko edo zergapean ez egoteko aurreikusten dituen baldintzak edo inguruabarrak aldatzen badira, Zerga Berezia autokitatu eta ordaindu beharra sortuko da aldaketa hori gertatzen den momentutik, non eta aldaketaren ondoren foru lege honek aurreikusten dituenetako zergaz salbuetsi edo zergapean ez egoteko kasu bat gertatzen ez den. Ibilgailu eskualdaketarik egiten bada aldaketa horrek matrikulazio gaietako organo eskudunaren aurrean ondorio izateko, organo hartan frogatu beharko da zerga pagatu dela edo bestela salbuetsita egoteko edo zergapean ez egoteko deklarazioa bertan aurkeztu, organo kudeatzaileak behar bezala eginbidetua, edo salbuetsita egoteko edo zergapean ez egoteko kasua aplikatzeko Zerga Administrazioaren onarpena.

Aurreko lerroaldeak aipatzen duen aldia bi urtera murriztuko da delako ibilgailuaren lehen matrikulazio behin betikoa foru lege honetako 43. artikuluko 1. zenbakiko b) eta c) letretan agintzen denaren ondorioz zergaz salbuetsita egon bazen.

Orobat, ezin eskatuko da zenbaki honetako aurreko lerroaldeek aipatzen dituzten autokitapea eta ordainketa, inguruabarren aldaketa hori ibilgailua zergaren aplikazio eremuaz kanpora behin betiko bidaltzea izan bada; hori frogatzeko, kasuko erregistroan egindako bajaren zertifikazioa aurkeztuko da, matrikulazio gaietako organo eskudunak emana.

Matrikulazio gaietako organo eskudunak zirkulazio edo erabilera baimen bat ematen badio zergaren aplikazio eremuaz kanpora behin betiko eta aurreko lerroaldean nahiz foru lege honetako 43. zenbakiko 3. zenbakian xedatzen denaren pean sartuta bidali eta ondoren zergaren aplikazio eremura itzuli den ibilgailu bati, baimen horrek lehenbiziko matrikulazio behin betikoaren balio bera izanen du zerga honi dagokionez."

Bi. 43. artikulua.

"43. artikulua. Salbuespenak, itzuli beharrak eta murrizpenak.

1. Honako garraibideetan egonen da zergaz salbuetsia lehenbiziko matrikulazio behin betikoa:

a) Lege indardunetan taxi, autotaxi edo autoturismotzat jotzen diren ibilgailuak.

b) Diru-ordainaren truke gidatzen irakastea beste erabilerarik ez izateko matrikulatzen diren ibilgailuak.

c) Alokatzeko beste erabilerarik ez izateko matrikulatzen diren ibilgailuak.

Hartarako, juzgatuko da ez dela automobil alokairurik izan automobilak abenduaren 30eko Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 19/1992 Foru Legeak aurreikusitako moduan lotura duten pertsonen laga zaizkienean, edo hamabi hilabete jarraitutan pertsona edo entitate berari hiru hilabete baino gehiagoz laga zaizkionean.

Hartarako, juzgatuko da ez dagoela automobil alokairurik alokairu-salmentako kontratuetan, ez eta erosteko aukeradun alokairukoak.

d) Elbarrituen izenean eta haiek bakarrik erabiltzeko matrikulatzen diren ibilgailuak, betiere honako baldintzak betetzen badituzte:

1. Beste ibilgailu bat antzeko kondizioetan matrikulatu zenetik gutxienez lau urte iragatea. Hala ere baldintza hori ez da eskatuko delako ibilgailuak erabateko hondamena izan bazuen, behar bezala frogatua.

2. Ibilgailu horietan geroago inter vivosko egin-tza baten bidez eskualdaketarik ez izatea matrikulatu ondorengo lau urteetan.

e) Honakoen izenean matrikulazio berezia, matrikula diplomatikokoa egiten zaien ibilgailuak, erregelamenduz finkatzen diren muga eta baldintzekin:

1. Mandataritza diplomatiko kreditatuak Espainian egoitza iraunkorra dutenak eta Agente diplomatikoak.

2. Espainiako Estatuarekin egoitza hitzarmena egin duten nazioarteko erakundeak eta estatutu diplomatikoa duten bertako langileak.

3. Karrerako Kontsul bulegoak eta atzerriko nazionalitatea duten kontsuletxe bateko karrerako funtzionarioak.

4. Mandataritza diplomatikoetako eta Nazioarteko erakundeetako langile tekniko eta administratiboak eta karrerako Kontsul bulegoetako langile-

ak baldin Espainiako nazionaliterik eta Espainian egoitza iraunkorrik gabeko pertsonak badira.

Aurreko 2. eta 4. idatz-zatietan agintzen denagatik ere, Erakunde horiek sortu dituzten nazioarteko hitzarmenak edo haien Egoitza Hitzarmenak beste muga edo baldintzarik ezartzen badute, horiek aplikatuko zaizkie Erakunde horiei, haien funtzionario estatutu diplomatikodunei eta haien langile tekniko administratiboei.

f) Gehieneko luzera hamabost metro edo gutxiago duten jostetako edo ur kiroletako ontziak, alokatzea beste erabilerarik ez izateko matrikulatuak.

Salbuespen horren baldintza izanen dira ibilgailuak alokatzeko jartzen diren mugak eta baldintzat betetzea.

g) Duten tajukeragatik arrauna edo pala beste bultzabiderik ezin eduki duten ontziak, eta maila olimpiakoko belaontziak.

h) Estatuak, Komunitate Autonomoek, Toki Korporazioek edo enpresa nahiz erakunde publikoek matrikulatzen dituzten aireontziak.

i) Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak ofizialki aitortpena eman dien aireontziak pilotoak hezi eta prestatzea edo erreziklatzea beste inolako erabilerarik ez izateko matrikulatuak.

j) Airezko nabigazioko enpresen izenean matrikulatzen diren aireontziak.

k) Airezko nabigazioko enpresei alokatzea beste inolako erabilerarik ez izateko matrikulatzen diren aireontziak.

l) Titularrak bere ohiko egoitza atzerritik Espainiara aldatzearen ondorioz matrikulatzen diren garraiobideak. salbuespena aplikatzeko baldintza izanen da honako eskakizunak betetzea:

1. Interesatuak Espainiako lurraldeaz kanpo izan behar zuten ohiko egoitza, egoitzaz aldatu aurreko hamabi hilabeteetan gutxienez.

2. Garraiobide horiek atzerriko edo jatorriko herrian zerga baldintza normaletan erosiak edo inportatuak beharko dute, herri hartatik ateratzegatik sortutako kuoten inolako salbuespenik edo itzulketarik izan gabe.

Baldintza hori betetzen dela juzgatuko da garraiobideak erosi edo inportatzeko erregimen diplomatiko edo kontsularretan ezarritako salbuespenak erabili direnean, edo aitortpena emandako eta jatorriko Estatuan egoitza duten nazioarteko erakundeen kideen alde emandakoak, Erakunde horiek sortzeko nazioarteko itunek eta Egoitza

hitzarmenek ezartzen dituzten muga eta baldintzekin.

3. Garraiobide horiek interesatuak lehengo egoitzan erabiliak beharko dute, gutxienez hango egoitza utzi aurreko sei hilabeteetan.

4. Matrikulazioa foru lege honetako 42.1.b) artikuluan aurreikusten den epean eskatu beharko da.

5. Salbuespenez matrikulatutako garraiobideak ezin eskualdatuko dira matrikulatu ondoko hamabi hilabeteetan. Baldintza hau ez betetzeak zerga ordainaraztea ekarriko du ondorio, ez betetzea hasi den datatik aurrera.

3. Aurreko zenbakiko a), b), c), d), f), i), eta k) letretan aipatzen diren salbuespenak egiteko baldintza izanen da zerga administrazioak aurrez aitortpena ematea erregelamenduz finkatzen den moduan. Bereziki, d) letrak aipatzen duen salbuespenaren kasuan, aurrez Foru Komunitateko Gizarte Ongizateko zerbitzuek edo kudeaketa entitate eskudunek elbarritasunaren zertifikazioa aurkeztu beharko dute.

Aurreko zenbakiko e) letrak aipatzen duen salbuespena egiteko, aurrez Kanpo Arazoetarako Ministerioak haren jatorria zertifikatu beharko du.

Gainerako salbuespen kasuetan deklarazio bat aurkeztu beharko da zerga administrazioaren aurrean Ekonomi eta Ogasun Departamentuak agintzen duen tokian, moduan, epean eta inprimakian.

4. Garraiobide erabiliak saltzea lanbide duten enpresarioek eskubidea izanen dute, frogatzen dutenean garraiobide bat lehenbiziko matrikulazio behin betikotik lau urte iragan baino lehen zergaren aplikazio eremuaz kanpora behin betiko bidali dutela, kanpora bidali zuten momentuan garraiobideak zuen balioari dagokion kuota ordainduaren zatia itzultzeko. Garraiobidea zergaren aplikazio eremuaz kanpora behin betiko bidali dutela frogatzeko, kasuko erregistroko bajaren zertifikazioa aurkeztuko da, matrikulazio gaietan eskudun den organoak emana.

Aurreko lerroaldeak aipatzen duen itzultze kasuan, honako arauok aplikatuko dira:

a) Zergaren aplikazio eremuaz kanpora bidaltzeak salmenta irmo baten ondorioz gertatua behar du.

b) Itzultzearen oinarria garraiobideak bidali zen momentuan zuen balioa izanen da, betiere goreneko muga dela foru lege honetako 46. artikuluko b) letrak aipatzen dituen balorazio taulak aplikatzean sortzen den balioa.

c) Itzultzearen tipoa Zerga kitatzeko orduan aplikatu zena izanen da.

d) Itzultzearen kopurua ez da inoiz izanen ordaindu den kuota baino gehiagokoa.

e) Garraibide erabilia saltzen duen enpresarioak eskatuko du itzultzea, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak agintzen duen tokian, moduan, epean eta inprimakian.

5. Zergaren oinarria, foru lege honetako 46. artikulua agintzen duen moduan kalkulatu, 100eko 50ean gutxituko da gidariaren tokia kontatuta gutxienez bost tokiko eta gehienez bederatzitik tokiko kapazitate homologatua duten ibilgailu automobilen kasuan baldin araudi indardunaren arabera familia larriek soilik erabiltzekoak badira, baldintza hauekin:

a) Ibilgailuaren lehenbiziko matrikulazio behin betikoa familia larri horietako aita edo amaren izenean egina izanen da, edo bestela bien izenean.

b) a) letran aipatu pertsonen izenean eta gutxitze horrekin beste ibilgailu bat matrikulatu zenetik gutxienez lau urte iragatea. Baldintza hori, hala ere, ez da eskatuko delako ibilgailuak erabateko hondamena izan bazuen, behar bezala frogatua.

c) Ez da zilegi izanen gutxitze hori erabiliz matrikulatu den ibilgailua ondoren inter vivosko egintza baten bidez eskualdatzea matrikulatu ondoko lau urteko epean.

d) Gutxitze hori aplikatzeko nahitaezkoa da aurrez zerga administrazioak aitortpena ematea erregelamenduz ezartzen den moduan. Betiere zerga administrazioan aurkeztu beharko da familia larria izatearen zertifikazioa, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako, Administrazio Zentraleko edo kasuko Administrazio autonomiko organoak emana."

### **Xedapen gehigarria**

Gasolina berunik gabea ezin erabili duten ibilgailu automobilak berritzeko laguntzak.

Salbuespen moduan eta 2003ko abenduaren 31ra arte, abenduaren 30eko Zerga Bereziei buruzko 20/1992 Foru Legeko 47 bis artikuluan agintzen den kenketaren kopurua 120.000 pezetaraino igotzen da (721,21 euro), agindu horretako baldintza eta eskakizunak ez ezik honako inguruabarrok ere gertatzen direnean:

a) Turismoko ibilgailu automobil erabiliak gasolina berunik gabea ezin erabili duen motorra baldin badu. Hartarako, Zientzia eta Teknologiako Ministerioak zerrenda batean azalduko du zein diren gasolina berunik gabea erabiltzeko gai diren turismoko ibilgailu automobilen markak eta modeloak, eta juzgatuko da gasolinazko motorra eduki eta zerrenda horretan ageri ez diren ibilgailuek betetzen dutela ahotan hartu dugun baldintza.

b) Turismoko ibilgailu automobil berriak gasolinazko motor katalizagailuduna badu. Juzgatuko da gasolinazko motorra eduki eta foru lege honek indar hartu ondoren lehenbiziko matrikula behin betikoa ematen zaien turismoko ibilgailu automobilerik betetzen dutela baldintza hori.

### **Xedapen iragankorra**

Abenduaren 30eko Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 19/1992 Foru Legeko 50.2.2. artikuluko hirugarren letraldeko d) letran agintzen dena aplikatuko zaie foru lege honek indar hartu ondoren jasotzen diren dirulaguntzei, bai eta dirulaguntzak data hori baino lehen erabaki baziren ere.

### **Xedapen indargabetzailea**

2004ko urtarrilaren 1etik aurrera, indarrrik gabe geldituko da abenduaren 30eko Zerga Bereziei buruzko 20/1992 Foru Legeko 47 bis artikulua.





## **Foru Lege proiektua, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriari aplikatuko zaizkien moduluak eta babes publikoko araubideko etxebizitzaren gehieneko prezioak ezartzen dituen**

### *PROIEKTUA ERRETIRATU EGIN DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Foru Diputazioak, 2001eko urtarrilaren 15ean hatutako Erabakiaren bidez, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriari aplikatuko zaizkien moduluak eta babes publikoko araubideko etxebizitzaren gehieneko prezioak ezartzen dituen Foru Lege proiektua erretiratu egin du, Biltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoaren babesean. Hori horrela, hona

### ERABAKIA:

**Lehena.** Etxebizitza arloko jarduketa babesgarriari aplikatuko zaizkien moduluak eta babes publikoko araubideko etxebizitzaren gehieneko prezioak ezartzen dituen Foru Lege proiektua erretiratu egin duela jakitun dagoela adieraztea.

**Bigarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 9ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 9ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.** Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 9ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**Bigarrena.** Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 9ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko**

### ZIOEN AZALPENA

Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 9ko 9/1999 Foru Legearen helburua da Nafarroako Foru Komunitatean eskubide sozialen gutun bat aldarrikatzea, gutxienez bi urtez hemen bizi izan diren herritarrei bide emanen diena lana eta oinarrizko errenta izateko, herritartasun eskubide guztiez baliatu ahal izan daitezen.

Eskubide sozialen gutunak herritartasun eskubide unibertsalen berrespenean du abiapuntu, eskubide horiek bizimodu duina izan, kultura, etxebizitza, hezkuntza, osasun zerbitzuak eta gainerako eskubide berdinekin gizartean erabat integratzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez duten guztientzat direla ulertuta. Nafarroan bizi diren herritarrek gizarte produktua zati baterako egiazko eskubidea dutela onartzen da, lana eskatu eta aurkitzen ez dutenentzako oinarrizko errenta gisa.

9/1999 Foru Legearen 4. artikulua ezartzen du oinarrizko errentaren zenbatekoa hileroko lanbidearteko gutxieneko soldataren 100eko 75 pertsona batentzat, gehi hileroko lanbidearteko gutxieneko soldataren 100eko 15 bigarren pertsonarentzat, gehi 100eko 10 pertsona bakoitzarentzat, hirugarrenarengandik hasita, familiako, gehienez ere, lanbidearteko gutxieneko soldataren 100eko 125.

Kontuan harturik eskubide sozialen gutunak zuzenean lotzen dituela oinarrizko errenta eta enplegua, beharrezkoa izanzen litzateke abiapuntua lanbidearteko gutxieneko soldataren balioa izatea, gaur egun duen zenbatekoa ez baita txirotasunaren mugara iristen –nazioarteko irizpideen arabera, batez besteko errentaren (hau da, egun, 3 milioi pezeta urtean) % 50ean dago muga hori. Une hauetan, gure oinarrizko errenta 636.120 pezetakoa da, urtean, batez besteko errentaren % 25etik beherakoa, eta beraz, muturreko txirotasunaren mugatik behera dago.

Estatistikako datu guztiek Nafarroako Foru Komunitatea Estatuko gizarte ongizatean maila altuena duen erkidegoa dela diote, etxebizitzari, hezkuntzari, osasunari, lan eta kulturari dagokienez; Nafarroan, batez besteko soldata Estatuko altuenetan bigarrena da, hilean 253.178 pezeta gordin, alegia, eta hileroko gure oinarrizko errenta 53.010 pezetakoa, gure erkidegoko langileen batez besteko soldataren % 21ekoa, bada, behar turik gaude 9/1999 Foru Legearen xedapenak

egokitzea, Foru Legea betetzen dela bermatzeko, bereziki, Nafarroan lan eske ari diren eta bilatzen ez dutenen pertsonen produktu sozialaren zati bat oinarritzko errenta gisa jasotzeko eskubidea onartzeari dagokion aldetik.

Objektiboki egoera ekonomiko ezin hobea dugu, aurrean aukera historiko paregabea Nafarroako populazioaren 100eko 6ak jasaten duen txirotasun sekulakoa eta gizarte bazterketa apaltzeko, horren kostua Foru Komunitateko Ogasun Publikoak har dezakeelako bere gain, azken urteotan izan duen aurrekontu superabitari esker, presio fiskala jaitsi eta PFEZaren zenbait erreforma aurrera atera dituen bezalaxe.

**Artikulu bakarra.** Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 9ko 9/1999 Foru Legearen III. Tituluaren 4. artikulua edukia honako honekin ordeztzea:

“4. artikulua. Zenbatekoa

Oinarritzko errentaren zenbatekoa lanbidearteko gutxieneko soldataren 100eko 100eko dirusarreraren adinekoa izanen da pertsona bakarrarentzat; lanbidearteko gutxieneko soldataren 100eko 15 baino gehiago bigarren pertsonarentzat; lanbidearteko gutxieneko soldataren 100eko 10 baino gehiago hirugarrenetik aurrerako pertsona bakoitzeko.

Familia batek ezin izanen du lanbidearteko gutxieneko soldataren 100eko 150 baino gehiago jaso oinarritzko errenta edo gizarte soldata gisa, salbu eta familian menpekotasuna duten kideak badaude, 100eko 65eko edo handiagoko minusbaliotasuna baldin badute, familia horiek lanbidearteko gutxieneko soldataren 100eko 175, gehiezin, jaso ahal izanen dutelako.”

**Azken xedapena.** Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio oinarritzko errenta arautzen duen apirilaren 19ko 120/1999 F. D. eta 9/1999 Foru Legean oinarritzen diren gainerako arauzko xedapenak egokitzeko, foru lege hau garatzeko.

## Foru Lege proposamena, Castejónen ikasleen hezkuntza-zerbitzua mantentzeari buruz Nafarroako Parlamentuak 2000ko ekainaren 30ean hartutako Erabakia betearaztekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Castejónen ikasleen hezkuntza-zerbitzua mantentzeari buruz Nafarroako Parlamentuak 2000ko ekainaren 30ean hartutako Erabakia betearazteko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehen.** Castejónen ikasleen hezkuntza-zerbitzua mantentzeari buruz Nafarroako Parlamentuak 2000ko ekainaren 30ean hartutako Erabakia betearazteko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**Bigarrena.** Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko otsailaren 1ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## Foru Lege proposamena, Castejónen ikasleen hezkuntza-zerbitzua mantentzeari buruz Nafarroako Parlamentuak 2000ko ekainaren 30ean hartutako Erabakia betearaztekoa

ZIOEN AZALPENA

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren Nafarroako Zuzendaritzak Castejónen DBHko ikastetxe bat jartzea erabaki zuen 1989ko urtarrileko Azterlanean –Ikastetxeen Sarea-Hezkuntza Planifikazioa Nafarroan Irakaskuntzen Erreformari Begira–, Castejón, Cadreita, Arguedas eta Valtierra-ko biztanleei zerbitzua ematearren. Halere, orduko alkateen arteko arazoak zirela-eta, Castejón eskola-mapatik at geratu zen. Castejón

eskola-komunitatea, ordea, ez zetorren erabaki horrekin bat, eta ez zuen etsi, harik eta, gutxienez, DBHko lehen zikloa izateko behin-behineko baimena lortu zuen arte 1997ko ekainean. Horrela, Nafarroako beste kasu batzuetan bezala, egoera berezia zela onartu eta salbuespen bat egin zen. Izan ere, Foru Komunitateko zenbait herritan eman izan da baimena DBH osoa zein DBHko lehen zikloa emateko, malgutasun irizpideei jarraituz –araudiak xedatutakoari jaramon egin gabe–, ikasleentzako hezkuntza zerbitzua eta ikastetxearen hurbiltasun printzipioa kontuan hartuz.

Hezkuntza Administrazioak erabakia hartu zuenetik igarotako urteetan, bertako herritarrek behin eta berriro eskatu dute Castejónen hezkuntza zerbitzuak izatea, hurbil egote printzipioari zein neska-mutikoen bizi kalitateari eta, hortaz, irakaskuntzarekiko jarrera hobea izateari lehentasuna emanez. Hezkuntza komunitatearen ustez, kaltegarria da ikasleak egunero eramatea 232 errepidetik Tuteraraino, Estatuko errepidetik arrisurtsu eta ibilienetarikoa baita. Gainera, oso positibotzat jotzen dute herritan eman den urteetako DBHko lehen zikloaren kalitatea. Haien ustez, ikastetxea eta irakasleak eskura izateak bide ematen du familiek hezkuntza sisteman benetan parte har dezaten eta erabakiak garaiz har daitezten; hau da, haien ustez horrek hezkuntzaren kalitatea hobetzea dakar.

1999/2000 ikasturtean, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak DBHko 1. maila kendu zuen –35 ikasleek Tuterara joan behar dute harrezkero– eta 2. maila soilik geratzen da. DBH 1eko 26 ikasleak ikasturte honetan agian Tuterara joan behar izanen zirela-eta, familiek aho batez eskatu zuten Castejónen lehen ziklo osoa egotea, eta erabakia-ekin bat egin zuten Eskola Kontseiluak eta gurasoen elakarteak.

Castejóngo Udalak ere ikusi zuen beharrezkoa zela herriarentzat hain garrantzitsua den auzi hori konpontzea, eta halatan, ekainaren 23an egindako osoko bilkuran aho batez onetsi zen DBHko lehen zikloko ikasleei emandako hezkuntza zerbitzua mantentzeko eta zerbitzu hori aurrerago bigarren ziklora zabaltzeko erabakia, bai eta Dos de Mayo ikastetxe publikoa handitzeko obrei ekitekoa eta Lehen Hezkuntzako langileak eta bikoizketak mantentzekoa ere.

Castejóngo hezkuntza komunitateak bere asmoak azaldu zituen Nafarroako Parlamentuan, ekainaren 2an Hezkuntza eta Kultura Batzordean egindako agerraldiaren bidez; bertan, Eskola Kontseiluko ordezkariak eta alkateak ikasleek bertan jarraitzeko eskaria egin zuten. DBHko hezkuntza zerbitzua herrian mantentzeko behin eta berriro egin duten eskariaren ondorioz, Nafarroako Parlamentuak Erabaki bat onetsi zuen gehiengoz ekainaren 30ean, Castejóngo Udalak osoko bilkuran onetsitako erabakiaren ildotik. Haren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiati zuen Castejóngo Dos de Mayo ikastetxe publikoa handitzeko obrak egin ditzan, DBHko lehen zikloa herrian mantentzeko, DBHko bigarren zikloa piskanaka ezartzen hasteko ideia azter dezan eta irakasleen plantillari eta bikoizketei euts diezaien.

Ikasturtea hasi eta erabakia betetzen ez zela ikusita, ahoz erantzuteko galdera egin zitzaion Nafarroako Gobernuari Biltzarrak irailaren 14an egindako Osoko Bilkuran, eta Hezkuntza eta Kultura kontseilariak erantzun zuen. Gobernuaren ordezkariak ulertu zuen Parlamentuak eskaera batzuk bete ditzan premiati zuela Gobernuak, baina egon ez zegoela inongo agindurik.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Gobernuak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloari dagozkion hezkuntza zerbitzuak ezarriko ditu Castejónen, bertako herritarrek eskatzen duten eskolatzeari erantzuteko.

#### **Xedapen iragankorrak**

**Lehena.** DBHko bigarren zikloa piskanaka ezarri eta ikasleen hezkuntza zerbitzua handitu ahal du Nafarroako Gobernuak, herrian aurreikusitako den industri-garapenari begira.

**Bigarrena.** Nafarroako Gobernuak Castejóngo Dos de Mayo ikastetxe publikoa handitzeko obrak egingen ditu, ikastetxe hori herriak egun dituen beharrezanetara egokitzearen, eta herriaren hezkuntza beharrezanek aregotzen badira, azpiegitura berriak ezarriko ditu horiei erantzuteko.

#### **Azken xedapena**

Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra foru lege honek.





NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonia* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--